

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: ADARRA • ESPE-
RIENTZIA: ESKULTOREA NAIZ •
EUSKAL HERRIA ETA ARGENTINA •
ZER DIOTE ETORKINEK? • IRUÑEKO
SANDUZELAI IKASTETXEA



Guztientzako eskola

Eskola barneratzailea



gaia

GUZTIENTZAKO ESKOLA

Urriaren 29, 30 eta 31an Guztientzako eskola biltzarra ospatu da Donostian. Besteak beste, eskola baneratzaillearen inguruko esperientziak eran dira ezagutzera eta horietako batzuk bildu ditugu gai honetan.



elkarrizketa

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA

25. urteurrena aitzakitzat harturik Adarrako lehendakariarekin eta idazkariarekin aritu gara berriketan iraganari, orainari eta geroari buruz.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GUZTIENTZAKO ESKOLA

Eskola baneratzaillea

16 elkarrizketa

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA

24 esperientzia

Eskultorea naiz

26 esperientzia

Kantuz Blai

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Zer diote etorkinek?

Itziar Aramaio

33 berriak

37 Nazioartea

Argentina-Euskal Herria

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Iruñeko Sanduzelai ikastetxea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel.: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz.

Erredakzioa: Joxe Mari Auztendi, Ixlar Elizagiren. Erredakzio batzordea: Mikel Estomba, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito

Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Agalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko

Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricmb, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo

Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobiluru. Diseinua: TRAM&Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.


Azaleko irudia: Hikhasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/X /20 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.

hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

30 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala

azaroa

Eskola barneratzailea, euskara barne?



Eskola barneratzaileak gizarte barneratzailea lortzen lagundu beharko luke, bigarren honek lehenengoa lagundu beharko lukeen bezala. Horretarako, gizarte barneratzailea herri proiektu gisa ongi zehaztuta izatea ezinbesteko baldintza litzateke.

“Guztientzako eskola” biltzarra ospatu berri da Donostian. Bertan, “eskola barneratzailea” maiz aipatu da. Baina, zer eskola mota da hori?

Eskola barneratzaileak *hezkuntzarako eskubide berdintasunean oinarrituz, ikasle guztien ikaste prozesua era aktiboan eta parte hartzailean antolatu behar dela* esan nahi badu, legeak eta bitartekoak beharko dira eskola mota hori sustatzeko. Baina, orokorrean, hartzen ari diren instituzio neurriak norabide horretan al doaz?

Alemanian, Frantzian, Italian eta abarretan gastu publikoa murrizteko hartu diren erabakiek eragin zuzena izango dute eskolan, kalterako eragina, zoritxarrez. Eta Espainian, aurrekoen ildo beretik, Kalitate Legea da ezartzen ari dena.

Kalitate Legeak pedagogia atze-

rakoa indartuz, ikasleak hautatzen eta sailkatzen ditu, eta behar handiena dutenak baztertzen ditu. Nola egin liteke eskola barneratzailea legedia baztertzailea denean?

Oro har, Euskal Herritik kanpo hartzen diren neurriek asko baldintzatzen dute gure jarduera. Jakina da Martin Ugalde kultur parkearen kontra egindako erasoak, era batean edo bestean, euskalgintza osoa baldintzatzen duela; eta baita ere Paris-ko eta Madrilgo gobernuak ezartzen dituzten legeek Euskal Herriko hezkuntza baldintzatzen dutela.

Hala eta guztiz, askotan erakutsi du Herri honek iniziatiba eta irudimena badituela, baita lanerako prestutasuna ere. Legeek asko laguntzen ez badute ere, gure eskola guztiena izateko lanean aritu gara. Zentzu horretan, sentsibiltatea era-

kutsi da, kontzientziazioa handitzen ari da, eta behar bereziak dituztenei laguntzeko ahalegin handiak egiten ari dira. Baina, Herri honek, Herri gisa, zehazturik al du etorkizunari begira bere eskola barneratzaileak nolakoa izan behar duen?

Guk, barneratzea errazteko, hizkuntza gaitasunak paper garrantzitsua jokatzen duela uste dugu. Gaur egun, Euskal Herriko ikasle guztiek frantsesa edo gaztelania ongi dakitela bukatzen dute derrigorrezko hezkuntza. Gutxiengo euskara maila, ordea, euskaraz ikasten dutenek soilik lortzen dute.

Hizkuntzen arteko desoreka handia da. Normalizazioa lortu nahi bada, eta ikasleak eskubideetan berdinak izatea nahi badugu, ez al du eskolako hizkuntzak euskara izan behar?

kronika

“Etorkinak”, “atzerritarrak”, “hizkuntza ereduak”, “dimisioa”, denak nahastu dira urriko azken egunetan. UGT sindikatuak etorkinen integrazioa bultzatzeko orientazio gisa Hezkuntza Sailak EAEko ikastetxeetan zabalduetako idatzi bat kritikatu du, euskal autonomia erkidegokoa ez beste hezkuntza sistematik etorritako ikasleak “etorkin” izendatzen zituelako. Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak berehala erantzun du zera esanez: “migrazio fluxuak beti izan dira, kontzeptu demografiko eta estatistiko bat da hori, eta Eusko Jaurlaritzaren proposatzen ari den etorkinentzako harrera politika eta hezkuntza sistema hor kokatzen dira”. PPK eta PSOEek zentsura mozio bana aurkeztu dute Iztuetaen jarrera gogor kritikatu. Espainiako Hizkuntza Akademiak, bestalde, “etorkin” hitzaren erabilpena zuzena dela adierazi du, eta beste hainbat komunitate autonomotan eta liburuetan ere “etorkin” deitzen zaie beste lurralde eta komunitateetatik etorritakoei.



Seaskaren eskaerak bete gabe jarraitzen dute

Protestak eginez hasi zuten urria Seaskako irakasleek eta gurasoek eta oraindik ere halajarraitzen dute. 93. irakasle postua hitzeman zitzaizen arren, oraindik ez diete eman eta euren aldarrikapenarekin sendo segitzen dute: 93. lanpostua eta euskarazko irakaskuntzarentzako legezko koadroa eskatzen dituzte.

Iazko udan Akademia Ikuskaritzarekin 93 lanpostu hitzartu zituzten ahoz, baina ez zuen hitza bete. Azken protestaldian 250 lagun bildu ziren Baionan, Donapaleun, Donibane Lohitzunen eta Uztaritzen, “Hitza hitz, emandako hitza errespetatu” eta “Kasu, ikastola kexu” zioten pankarten atzean.

Parisen biltzekoak ziren Frantziako Hezkuntzarekin, baina hitzordua atze-

ratu egin da eta azaroaren 12an elkartuko dira. Seaskako arduradunek aditza eman dutenez, elkarrekin aterabide bat atzemateko erabili nahi dute bilkurahori, hots, ez dute Paristik esku hutsik itzuli nahi.

Akademia Ikuskaritzako suprefektak azaldu izan die “estatuaren maila gorenean ez dagoela murgiltze eredu arriskuan ezartzeko borondate politikorik”, baina Seaskako arduradunek zalantzak dituzte. Izan ere, euren gutxieneko eskakizunei ez erantzutea eraso bat bezala hartzen dute.

Akademia Ikuskaritzarekin biltzeaz gain, Bordeleko Errektoretzan ere bilduak dira. Han bigarren mailarako falta ziren orduak ematea eta irakasleen formazioa bideratzea onartu ziren errektoreak. Lehen mailako eskaria, ordea, bere horretan gelditu zen.

Gauzak horrela, 93. lanpostua onartu arte eta murgiltze ereduari behar adinako bermea eman arte presioa mantenduko dutela adierazi dute Seaskako arduradunek.

Nafarroan, bestalde, hezkuntzako sindikatuak egin beharko dute presioa. Izan ere, UPNko parlamentariak Gaineran euren iritzia ematea eragotzi die. Sindikatuok hizkuntzen inguruko dekretuaren gainean duten kezka adierazi nahi zuten, Europar Batasuneko hizkuntzei atea irekin baitizkie, baina euskararen garapena moztuz.

Eskola porrota baino okerragoa da porrot pertsonala

Jorge Catal n



Irunberri, Biana, Lodosa eta Tuterako ikastolak egoera larrian dira

Nafarroako eremu ez euskaldunen dauden lau ikastolak ekonomikoki egoera larrian daude, oraindik ez baitute aurten dagokien diru laguntzarik jaso Nafarroako Gobernutik.

Pasa den martxoan onartu zen Nafarroako Parlamentuan ikastola horientzako diru laguntzen legea. Horrela, ikastola guztiek legezkatzeak eskatzen dituen gutxieneko baldintzak bete bitartean, orain arte bezala kobratzea erabaki zen.

Praktikan, ordea, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak ez du hala jokatu. Diru laguntzak eskuratu ahal izateko ohikoak baino agiri eta dokumentu gehiago eskatu dizkie ikastolei, hala nola, ikastetxeko instalazioen planoak, ikastetxeko arduradunak sinatutako

asteko irakaslanaren orria, nominen fotokopia konpultsatuak, familia liburu-ko inskripzioaren fotokopia konpultsatuak, zentroko curriculumak, ikasle- en eskola liburu- etako 6. eta 7. orrialde- ak eta abar. Neurrigabeko eskakizunak dira, orain arte ez baitzaio inongo itun- peko ikastetxeri eskatu horrelakorik. Paper guztiak emanda ere, azaroan aurtengo diru laguntzen %75 baino ez luketela kobratuko adierazi dute ikas- toletako arduradunek. Nolanahi ere, oraindik ez dute zentimorik ikusi.

Aralar alderdi politikoak Luis Campoy Hezkuntza kontseilariaren agerraldian eskatu du Parlamentuan, "egoera ez euskalduneko ikastolen egoera larriaren berri" eman dezan. IUk ikastola horiek jasaten duten jazarpena salatu du eta hori "jasanezina" dela nabar- mendu du.

Guztira 500 ikasle eta 60 irakasle da- biltza Irunberri, Biana, Lodosa eta Tute- rako ikastoletan, eta euren etorkizuna kolokan jartzen du egoera honek.

Nafarroako Gobernua ezezik, badi- rudi eguraldia ere kontra dutela ikasto- lok. Izan ere, Irunberriko ikastolak an- tolatu du aurtengo Nafarroa Oinez, eta bertan behera gelditu zen eguraldi txar- raren eraginez. Hori dela eta, Euskal Herri osoari egin diote dei eraikin berria egiteko diru laguntza eman dezan. Oraindik ere garaiz laguntza hori eman nahi duena.

"Urte sabatikoa" aukeran izan- go dute datorren ikasturte- tik aurre- ra EAEko irakaskuntza publikoko funtzionarioek. Eusko Jaurlaritzak eta EILAS, ELA eta LAB sindikatuek irailaren 25ean lortu zuten akor- dioa eta abenduan argitaratu da. Beraz, 2004-2005 ikasturtean eza- rriko da martxan.

Akordioaren arabera, formula hau aukeratzen duen irakasleek bost urtetan soldataren %84 kobratuko dute; lau urtetan egingo dute lan eta bosgarrena libre hartuko du- te. Hala ere, aktibo mantenduko di- ra eta gainontzekoek dituzten es- kubide sozial eta laboralak ez dituzte galduko.

Hiru sindikatuek adierazi dute- nez, "banaketa partzialeko urtebe- teko lan baimen" honek lan poltsa irekiko du, langileria gaztetuko du eta sare publikoko irakasleen osa- sunari on egingo dio. Jubilatze- ko gertu dauden irakasleei ere aukera emango zaie, eta eskaera egin du- tenei atzera egiteko aukera eman- go zaie arrazoi justifikatuak baldin badituzte. Dena dela, formula hau funtzionarioentzat soilik izanen da, langile laboralak eta interinoak kanpoan uzten dituelarik.

Neurri "berritzailea" dela adiera- zi dute sindikatuek, eta gainontze- ko lekuetan interes handiz hartu dutela. Horrelako neurriak hezkun- tzan ez ezik, beste sektoreetara ere zabaltu beharko lirakeela uste du- te, lan banaketa ekarriko lukeelako.

Behin abenduan akordioa argi- taratu ostean, urtarriletik maiatza bitartean interesa duten irakasle funtzionarioek izena emateko auke- ra izango dute eta datorren ikastur- tetik aurrera hasiko dira lizentzia berriarekin.

Guztientzako eskola

Eskola barneratzailea



Jendetza handia bildu zen Berritzeguneek antolatuta Donostiako Kursaalean urriaren amaieran ospatu zen "Guztientzako eskola" biltzarrean.



Pertsona Ezinduen Europako urtea izendatu dute aurten goa. Baina 2004an ere guztiok kontuan hartuko gaituen gizartea ehuntzea eguneroko lana da. Eskolan ere denek lekua izan dezagun zer zimerdu jarri behar diren aztertu dute Donostiako Kursoalean egindako biltzarrean urriaren azken astean. Milatik gora profesionalak hartu dute parte jardunaldiotan, goizetan bertako eta atzerriko adituen azalpenak entzunaz, eta arratsaldeetan euren esperientziak trukatzuz, Euskadin erreferenteak diren praktiken berri denei zabaldu asmoz. Antolakuntza lana, esperientzia guztiak kubo batean sartzeko lan biribila, Bermitzeguneei zor zaie.

Jardunaldiotan aurkeztu diren ponentzia guztiak web orri honetan eskura ditzakezue: www.hezkuntza.net.

Artikulu honetan Euskal Herriko zenbait esperientzia jaso nahi izan ditugu, eskolak haur bakoitzaren beharrei erantzuna aurkitzeaz arduratzen direnen eskutik.

Eskola barneratzaileak aniztasunaren komunitate

Ikasgelan sartuta, gure begiek erraz detektatzen dute *"arazoa duen"* haurra, *"eskolan zailtasunak dituen"* haurra, *"laguntza behar duen"* haurra. Geure begitan haurra da *"arazoa"* duena, *"zailtasuna"*, *"laguntza premia"* duena. Zer den engainagarria begia, izatez *"arazoa"* eskolan baitago, ez haurraren: eskolak du haur guztiei erantzuteko *"ahalmen urritasuna"*, irakasleak du bere haur bakoitzaren araberako eskola antolatzeko *"zailtasuna"*, irakasleak du beste irakasle baten *"laguntza premia"*. Begirada aldaketa hori eskatzen du eskola barneratzaileak; hesiak eskolan daudela ikustea, ez haurraren. Sarri gurasoak ez dira eroso sentitzen, beti mesede eske ari diren inpresioa dute, euren haurrarentzat espreski neurri bereziak eskatzen ari direla iruditzen zaie, *"gehiegieskatzen ari direla eta barkatzeko"*, alegia. Ahazten zaiguna da, eskolak berez duen ardura horixe dela, ikasle guztiei erantzutea.

Ikasgela barruan horma asko daude, ordea, aniztasunari mugak jartzen dizkietenak: testu liburuekiko murruntza, denei modu berean irakatsi eta modu berean ebaluatzeko joera, errealitatea puskatan egitea ikasgai zurrunetan, irakasleak bere ardura laguntzailearen bizkar uztea... Baina mugarik handiena geure baitan daukaguna da, ezberdintasuna ulertzeko dugun modua da hesirik handiena: ezberdintasunak ikastaldearentzat frenu gisa ikusten dira, martxa oztopatzaile, arazo sortzaile gisa. Aldiz, ikerketek frogatzen dute eskolan emaitza hobeak lortzen dituztela ahalmen ezberdinetako haurrez osatutako ikastaldeen, mailaren arabera osatutako taldeen baino; eta emaitzatan hobeak hori jasotzen dute bai eskolan zailtasun gehien dituztenek, eta baita eskolan arrakasta gehien dutenek ere.

Aniztasunari erantzuteko gakoa, ikasleari egokitutako eskola etengabe birsortzea da, ikasleari prefabrikatutako eskola horretara egokitzeko exijitu beharrean. Eskolaren etengabeko moldaketa horrek irakasle guztien elkarlana eskatzen du, eskolak komunitate gisa funtzionatzea, irakasle bakoitza bere gelan isolatuta egon gabe. Zorionez, Euskal Herriko eskolek urte asko darabate ahalmen ezberdineko haurrei ate zabalik eta komunitate gisa funtzionatzen. Datozen orriotan esperientzia horietako batzuk bildu ditugu. Elkarriketatant etengabe errepikatu dizkiguten esaldiak hauexek izan dira: *"haurraren araberakoa da hori dena, ez dago orokortzerik. Kasua ikusi behar da"*. Haurrarendantik abiatze hori zeinen argi duten *"ezberdinak direnekin"* lan egiten dutenek, eta zeinen erraz ahantz dakiekeen irakasle arruntei, gelan haur bakoitza dela ezberdina ikusten ez dutenean.



G

Adimen urritasuna

Zegamako Aitxuri herri eskola



Mila ALUSTIZA

Psikomotrizista eta tutorea 3. mailan

Txikitasunaren abantailak ondo ezagutzen dituzte Inmak eta Milak. Zegama bezalako herri txiki batek kalea ikasteko leku bihurtzeko aukera eman die. Aitxuri eskola txikia izateak, berriz (85 haur eta 11 irakasle ditu), ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko eta irakasle guztiak inplikatzeko ahalmena du berekin. Psikomotrizitatea dute hainbat arazoren ukendu. Haur eta Lehen Hezkuntzako talde guztiak astean bi orduko psikomotrizitate saioa dute Milak gidatuta, tutoreek kanpoko behatzailearen lana egin artean.

Biziaz ikasi

Inma eta Milari ikasle batekin izandako esperientziak eman dizkie ezberdintasunari erantzuteko klabeak. Ikasle horrek 9 urte zituenean, gelakideen curriculumalde batera utzi eta prozedurazko helburuetan zentratu behar izan zuten. Sentimenduak adieraztea, komunikazioa, autonomia, gauza berriei aurre egiten jakitea, inizatiba hartzea eta gisako prozedurak izan zituzten langai. Inma eta Milarentzat psikomotrizitatea izan zen erlaxazioa, komunikazioa eta sentimenduen adierazpena lantzeko errezeta. Baina, psikomotrizitatean egindako lorpen txiki bako-

Inma OIAEGI

Hezkuntza Bereziko hezitzailea eta ikasketa burua

tza eguneroko errealiteran eraman behar zuten gero eta irakasle guztiaren inplikazioa eskatzen zuten horrek. Ikasgai bakoitzak ikasle horri zer esperientzia, zer prozedura lantzeko balio ziezaiokeen aztertu zuten; berdin egin zuten zentroko gainerako eremuekin ere.

Ikaslearen eguneroko bizitza eskolaz gain herrian eta etxean gauzatzen denez, esparru horietan autonomo izateko errekurtsuak landu zituzten. Irakasleak herriko denda eta zerbitzuekin harremanetan jarri eta erosketak egiten irakasten zioten haurrari, edo patxadaz egoten zuku bat hartu bitartean. Gurasoekin, berriz, jolasen bidez harremana lantzeari eman zioten garrantzia.

Denen inplikazioa

Irakasle talde osoaren inplikazioa dute Aitxurin. Inma astero biltzen datutore bakoitzarekin, eta ikasgelan landu beharrekoa egokitu egiten dute ikaslearen ezaugarrietara, irudiekin errefortzua eskainiz edo bestelako bitartekoen bidez. Arreta hori ez dute jartzen urritasun jakin bat duten ikasleengan soilik; berdin egiten dute, esaterako, irakurtzen ikastea besteei baino gehixeago kostatzen ari zaion ikaslearekin ere. Jarraipena egiteko tarteka ikasge-

lara sartzen da Inma eta, beharrak eskatzen duenean, ikaslea bakarka ere hartzen du.

Irakasle klustroan nor bere ikasle taldea nola doan azaltzen du eta arazoak bideratzen dira. Hartara, gainerako irakasleek badakite nola lagundu eguneroko bizitzan, eta beste ikastalde baten tutore izaten direnerako ere jada ezagutzen dute talde horren bilakaera.

Gurasoak

Haurrak behar bereziak dituenen, gurasoen ohiko erreakzioa errealitate hori ukatzea omen da; *“etxean ederki egiten du, bada!”* esaldia behin baino gehiagotan entzuna diete gurasoei.

Etxean lantzeko gauzarik garrantzitsuetako bat, eguneroko ardua txikiez gain, gurasoekiko harremana da. Haurrarekin jolasteko aholkatzen diete gurasoei. Haur Hezkuntzan dauden artean gurasoek jolasaren garrantzia onartzen dute; baina, behin haurra batuketak eta irakurketa lantzen hasten denean, guraso askoren kezka eduki akademikoetara pasatzen da, eta jolasaren bidez lantzen diren alorrak jada ez zaizkie hain garrantzitsuak iruditzen.

Beste ikasleak

Ikaskideek kontziente izan behar dute nor bere zailtasunak dituela eta denok garela ezberdinak. Horri buruz asko hitz egiten diete tutoreek ikasleei, txikitatik. Kontziente ez badira, arriskua baitago *“zer mantsu irakurtzen duzun!”* bezalakoak botatzeko, sortzen duten minaz jabetu gabe.

Ikasgela barruan lan kooperatibok berebiziko pisua hartzen dute. Zailtasunak dituenari protagonismoa ematea garrantzitsua da, bai bere autoestimua erantzat eta baita ikaskideak aberasteko ere. Askok da ikaskideek talde lanetik jasotzen dutena eta kontziente dira, halako balorazioak egiten baituzte: *“zenbat ikasi dugun. Gainera denok gainditu dugun azterketa”*.

Autismoa

GAUTENA



Marijo GONZALEZ

GAUTENako Hezkuntza Zerbitzuko arduraduna

GAUTENA Gipuzkoako elkarte da, gurasoek sortu zutena orain 25 urte, autismo izaerako gorabeherak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko. Hasierako garaietan hezkuntza zentro bereziak ireki arren, GAUTENAK beti izan du argi zentro berezietatik atera egin behar zirela haurrak eta eredu barneratzailearentz jo. Jada badira 20 urte eskola arrunten barruan ikasgelak ireki zituztela arreta handia eskatzen duten ikasleei erantzuteko. Egun, Gipuzkoan 64 ikasle daude halako gelatan. Badira beste bederatzi ikasle, denbora gehiena ikasgela arruntean ematen dutenak eta une puntaletan doazenak gela berezira.

Gela egonkorrak

Autismo izaerako gorabeherak dituen ikasleentzat dira, printzipioz, gela egonkorrak, eta arreta handia behar duten ikasleei erantzuteko sortuak dira. Oso gela txikiak dira. Batez beste bost ikasle izaten dituzte, eta horiekin lau profesionalek jarduten dute: irakasleak, hezitzaileak, eta bi horiek tarte librearen duten txanda hartzen dieten beste bi zainzaileak. Beraz, ikasle bakoitzari ematen zaion arreta oso indibidualizatu da. Ikasle bakoitzak bere neurria egindako programa indibi-

duala izaten du, eta programa horretan esku hartzen dute ikasle horrekin harremanetan dauden hezitzaile guztiek (irakasleek, aisialdiko begiraleek, psikologoek, gurasoek...).

Baina zentro arruntak dituen onurak ere bere egin nahi ditu ikasgela egonkorrek. Horregatik, ikasgela egonkorreko haur bakoitzak bere erreferentzia ikasgela arrunta du, eta astean ordu batzuetan bertara joaten da. Alderantziko integrazioa ere egiten dute; alegia, batzuetan erreferentzia taldea dela gela egonkorra etortzen dena. Ateak zabal-zabalik dituzte, beraz, gela egonkorrek.

Erreferentzia ikasgela

Erreferentzia ikasgelan helburu nagusia trebetasun sozialak lantzea izaten da: talde handi baten barruan egoten ikastea edo irakasleari ez ezik ikaskideei ere laguntza eskatzen ikastea, esaterako. Alor soziala lantzeko ikasgai egokienak zein diren aztertzen dute, kasu bakoitza kontuan izanda. Marijok dionez, *“nahiz eta askotan soinketa bezalako ikasgaiak egokienak iruditzen zaizkigun harremanak lantzeko, praktikan ikasleak ez dira eroso sentitzen horietan, oso ikasgai libreak direlako. Soinketan taldeko jolasak egiten dira eta ikasleok ez dituzte arauak ulertzen. Gusturago egon ohi dira ikasgai egituratuagoetan”*. Izatez, jolas ordua omen da askotan eskolan dagoen unerik ez-integratzaileena, haur bakoitzak bere gustuko jolasera egiten duelako hanka, eta jolas horien arauak ulertzen ez dituztenak taldetxoetatik kanpora gelditzen direlako.

Haur batzuk bakarrik joaten dira erreferentzia ikasgelara, euren lan egokitua daramatela. Halakoetan gakoak izaten da ikasle horrek bere lana ahalik eta modu autonomoenean egitea. Gehiengo, berriz, gela egonkorreko

laguntzailearekin joaten da erreferentzia ikasgelara. Irakasle arruntak haur hori ere kontuan har dezaten saiatzen dira; berretzat fotokopia bat gehiago egin dezala (nahiz agian ez duen azalpena jarraituko), edo ikasle hori ere lan talde batean sar dezala (nahiz agian ez duen ulertuko zein den egitekoa). Gainerako ikasleek ere ikus dezaten partaide bat gehiago dela.

Alderantziko integrazioa

Alderantziko integrazioa ikasgela egonkorrean edo jolastokian egiten dute, eta une horiek ikasle guztientzat erakargarriak izaten saiatzen dira. Jolasak dira, jakina, “guztien gustuko platera”. Merkatuko mahai jolas ia guztiak egokitu dituzte, Marijok dionez, *“jarri arte ez baikara ohartzen joko arautuak noraino diren konplexuak! Oka xume batean ere, jakin behar duzu txanda errespetatzen, dardoa irakurtzen, laukiak kontatzen, lauki bakoitzeko marrakia interpretatzen...”*. Gaitasun sozialak lantzeko jolasek duten garrantzia nabarmena da, besteekiko komunikazioan jartzen baikaituzte, arau jakin batzuren baitan.

Alderantziko integrazioaren helburua da gelakideek ikastea nola komunikatu daitezkeen autismo izaerako gorabeherak dituen lagun horrekin, eta gainera jabe daitezela ikaskide hori gauza asko egiteko gai dela, ziur aski beregandik espero ez zituzten gauza asko egiteko gai dela, hain zuzen. Aurreiritzien aldaketa hori nabaritu izan du Marijok, ikasleek esperientziaren hasieran eta bukaeran egiten dituzten inkestatan. Hasieran ikaskideek halako aurreiritziak izan ohi dituzte: *“ulertzen ez den hizkuntza bat mintzatzen dute”* edo *“ez dute hitz egiten”*. Ikasgelan harremanetan jartzen direnean hasten dira, benetan, ikasle hori nor den ezagutzen.

Entzumen urritasuna

Gasteizko Samaniego ikastetxea



Irantzu IBARRARAN

Zeinu hizkuntzako irakaslea

Itziar MUGARZA

Zeinu hizkuntzako irakaslea

Ana BARRON

Zeinu hizkuntzako irakaslea

Bea MARTINEZ DE ITURRARAN

Logopeda

Gasteizko Samaniego ikastetxean 318 gaztetxok B eta D ereduetan ikasten dute. Etorrin askok jotzen du bertara. Ikastetxearen beste nortasun ezaguarria entzumen urritasuna duten ikasleei ematen dieten erantzuna da. Argazkiko profesional taldeak 13 eta 17 urte bitarteko lau ikaslerekin egiten du lan. Irakasleok gela arruntean ahalik eta gehien egon daitezten saiatzen dira; berriz ez da posible izaten, ordea, ikaskideen martxa jarraitzea. Hargatik gela arrunteko eta gela bereziko jarduna txandatzten dute.

Hesiak gairidituz

Entzumen urritasuna duten ikasleak bakarrik joaten dira defenda daitezkeen ikasgaietara, alegia, laguntzailearik gabe. Beste ikasgai batzuetan zeinu mintzairako irakaslea izaten dute albonan, azalpenak itzultzeko. Ikasle talde osoarekin, berriz, ikaskideekin nola komunikatu behar duten lantzen dute. Horman zintzilikaturik dute bai alfabeto daktilologikoa eta baita jarraitu beharreko komunikazio pauten zerrenda

ere. Tutoretzako denbora zati bat zeinu mintzaira ikasteari eta entzumen urritasuna dutenen mundua ezagutzeari eskaintzen diote. Irakasleekin ere lantzen dute hori guztia, eta ikasturtean zehar hitzaldiak antolatzen dituzte entzumen urritasuna duten pertsonen euren esperientzia kontatuz.

Asko dira, ordea, eskolako dinamikan aurki daitezkeen hesiak. Irakasleek diktaketak egiteko duten ohitura da bata, edo jolas orduen zein suteen abisua emateko txirrineraren erabilteza. Bestetik, eskolak filmak ikusteko programa batean parte hartzen du, baina azpitu-ludun filmik ez dute eskaintzen. Antzerkietara edo hitzaldietara joaten direnean ere hesiok agertzen dira.

Lanketa berezia

Gela berezian gehien kostatzen zaizkien ikasgaiak sakontzen dituzte, baita komunikazio gaitasuna landu ere. Irakasle batzuek etxetik dakarte zeinu mintzaira; beste batzuk ikastetxean ikasi dute, eta bada ahozko hizkuntzan mintzatzeko denik ere. Motibazioak garrantzia izugarria

du beste hizkuntza bat ikasterakoan. Irakasle bat, esaterako, gorren komunitatean bizi da eta ez du ezer jakin nahi entzuleen munduaz; zaila da berekin entzumen, intonazioa edota ezpainen irakurketa lantzea. Ahozko hizkuntza darabilen ikasleari, berriz, ez zaio interesatzen zeinu hizkuntza ikasterik.

Logopedak intonazioa lantzen laguntzen die ordenagailu programa berezi baten bidez. Beste aparailu batek, berriz, mikrofonotik sartutako soinua amplifikatu egiten du entzungailuetan, eta ikasle bakoitzak egokien entzun dezakeen frekuentzia zein den aurkitzen du. Hala, gero hitzok egokiago ahozkatuko dituela espero dute. Teknologia berriek, ordea, milioiak balio dituzte, eta formazio izugarria eskatzen dute. Aparailuok erabiltzen ikasteko, esaterako, irakasleak Balkanetatik ekarri behar dira. Beak Donostiako irakasle bati eskatu behar izan dio oinarritzko nozioak irakasteko, eta bere kasa ari da aparailuak eskaintzen dituen aukerak ikasten, izugarri irakurritik eta praktikan frogatuz.

Hezkuntza Saitetik baliabideak oso pixkanaka iristen direla diote. Faltan sumatzen dute, esaterako, entzumen urritasuna duen helduaren irudia: heldu horrek irakatsiko lieke ikasleei zeinu mintzaira, eta erreferente garrantzitsua izango litzateke ikasleontzat. Profil honetako irakasleak jada sartu omen dituzte Espainiar estatuko hainbat ikastetxetan. Euskadin entzumen urritasuna duen heldu asko dago egoki prestatua, irakasgintza formazioa jaso duena. Baina, oraindik gure ikastetxeetan irakasle horiek falta dira.

Autoestimua

Haurren autoestimuan eragin zuzena izaten du gurasoekin duten komunikazioak. Haurrak txikiak direnean, familian sortutako zeinu gutxi batzuekin komunika omen daitezke. Baina, behin adin batetik aurrera elkarriketa sakonagoak behar dituzte, eta funtsezkoa omen da gurasoek zeinu hizkuntza ikastea. Bestela haurra isolatuta senti daiteke etxean, eta horrek autoestimua hondoratzen du.

Entzumen urritasuna

Zaldibiko Lardizabal eskola



Blanca HERNANDEZ

ARANSIko aditua

Nekane ARRUABARRENA

Tutorea

Nortasun handikoa, jakin-min bizi-koa, irakurzalea... halaxe deskribatzen digute esperientzia honetako subjektua. Ahozko komunikazioan halako gaitasuna du, non irakasleei askotan ahaztu egiten zaien entzuteko zailtasunak dituenik, eta hori "traba" ere bada, jarraitu beharreko komunikazio pausatik ahaztu egiten baitzaizkie askotan. Esperientzia honek ikastalde osoari asko eman dio, kalitatezko espresioa lantzea ekarri baitu.

Hasierako urratsak

Eskolan hasi zenean gorreria sakona zuen haurrak. Bere gurasoak hasiak ziren keinu hizkuntza ikasten. Oso neska bizia, argia, jakin-min handikoa zen txikitatik, gurasoekiko komunikazioari esker. Informazio asko emateaz arduratu dira beti etxean, eta gaur egun ere ikaskideek baino gehiago jarraitzen omen ditu aktualitateko albisteak, etxean jakin-mina auspotu diotelako beti.

Karmelek, zuzendariak, gogoan ditu eskolako klaustroak izan zituen bile-

Karmele GAZTA AGA

Lardizabal herri eskolako zuzendaria

rak, nola komunikatu aztertzeke; irakasle denek izango baitzuten harremana haurrekin. Keinu hizkuntza behar zuten ikasgelako lanerako, eta beste pertsona bat ekarri zuten egun erdiz lagun zezan. Irakasle hura talde osoarentzatzen, ez espreski entzumen urritasuna zuen haurarentzat. Blancak badu esperientzia lan horretan, eta bere hitzetan, *"ikasgelako dinamika asko aldatzen da, baina aldaketa hori ikaskide guztien hoberako izaten da. Nik beste eskola batean jarduten dut irakasleak esana zeinu hizkuntzarekin errefortzatu, eta euskarri bisual hori laguntza handia da beste haur batentzat ere, etorkina denarentzat eta hainbat gauza ulertzeko zailtasunak dituenarentzat"*.

Norabide aldaketa

3 urterekin inplantea egin zioten ikasleari, eta harrez gero asko aldatu da haurraren egoera eta baita eskolaren antolaketa ere. Egun Blancarekin entzuten "ikasten" ari da, soinuaren diskriminazioa egiten ikasten ari da. Soinuen diskriminazioan aurreratu ahala,

urrats handiak ematen ditu ahoskatze jardunean. Ikasgelan dinamika arrunta jarraitzen du, eta ordu gutxitan izaten du irakasle bat alboan. Ikasgela U forman antolatzen dute, denak aurpegiz-aurpegi egon daitezten. Irakasleak oso kontuan izan behar ditu ondo ahoskatzea eta keinu bidezko espresioa, mesedegarri delarik ikaskide guztientzat. Gainerako ikasleek ere espresio pautak horiek jarraitu behar dituzte, nahiz sarritan gogorarazi egin behar izaten zaien.

Nortasuna langai

Inplantearekin asko aldatzen da egoera pertsonala, eta Blancak dionez, *"askori geratzen zaio jada ez dela gorrasentitzen"*. Horrek beste "arazo" batzuk dakartza. Ikasle honen kasuan, keinu hizkuntzaren aurka erreakzionatu zuen; irakasleek komunikazioa keinu bidez errefortzatu "itsusi" iruditzen zitzaion. Nahiz ahozko komunikazioan oso ondo moldatu, keinu hizkuntza jakiteak badu bere garrantzia; esaterako, entzumen urritasuna duten beste pertsonekin komunikatu ahal izateko. Harreman horiek behar ditu, gainera, erreferente bezala bere buruaren irudia finkatzeko. Eskolan bere antzeko egoera bizi dutenen erreferentzia falta baitzaio, eta hori gabe berea kasu bakarra dela sentitzeko arriskua du. Hargatik, ARANSIko antolatzen dituen bazkarietan edo txangoetan parte hartzen du.

Bere mugak zein diren jabetzen eta onartzen laguntzea ere bada Blancaren lana, ikasgelaz kanpo komunikazioa lantzen duten bitartean. Eguneroko bizitzan lagunekin eta bere buruarekin dituen gatazka txikiak gainditzeari garrantzia handia ematen diote. Zoragarria omen da haurrak duen ikasnahia; baina batzuetan bere mugak onartzen jakin behar du. Euskaraz bikain moldatzen da, eta inor baino irakurzaleagoa da. Gaztelanian egin dituen aurrerapausoek harrituta ditu denak. Ingelesa ikasteko amorratzen dago, baina irakasleek baretu behar izan dute, pauso bakoitza bere garaian eman behar baita.

Urritasun fisikoa

Legazpiko Haztegi ikastola



Maria Jesus PEREZ DE ARENAZA

Koordinatzailea

Koldo MAIZ

Teknologiako irakaslea

Arantxa SEGUROLA

Tutorea

Itsaso MENDINUETA

Irakasle laguntzailea

Komunikatzeko tresnak sortzea da Haztegi profesional talde honen jardun amaigabea. Izan ere, esperientzia honetako subjektuak ez du ahoz hitz egiten, nahiz ulermena eta adimena oso garatuak izan. Bestetik gorputzaren mugimendua kontrolatzeko zailtasunak ditu. Ikasleari hitza ematea da Haztegiaren borroka.

Komunikazio beharrei erantzunez

Haurrak 2 urte zituen ikastolara etorri zenean eta berehala sartu zen gela arruntean, laguntzailearekin. Lehen helburua eskolan gustura sentitzea izan zen, bai haurra eta baita bere gelakideak ere. 3 urte zituenerako beste behar bat ere sortu zen: haurrak zer egin nahi zuen aukeratu ahal izatea. Horretarako, laguntzaileak argazkitan erakusten zion ekintza bakoitza, eta haurrak begiradarekin seinalatzen zuen egin nahi zuen hura. Gerora, irakaslearen azalpenak ulertzen zituen edo ezjakitea izan zen kezka; irakasleak azaldu-takoaz galderak egin beharko zizkion,

eta haurrak erantzuna emateko modua aurkitu behar zuten. SPC sistemara jo zuten: ikasgaiari buruzko kontzeptu klabe bakoitzak bere irudia zuen, gainean hitza idatzirik zuela. Hala, irakasleak egindako galderen erantzuna aukera zezakeen irudiotan, begiradaren bidez.

Adinean aurrera egin ahala, maila pertsonaleko komunikazioan gauza konplexuagoak adierazteko tresna behar zuten haurrak. Taula bat eraiki zuten, irudi txikitan adieraziz eguneroko bizitzan beharko zituen aditz, izen, adjetibo eta abarrak. Laguntzaileak hatzarekin banaka seinalatzen zizkion aukerak, eta haurrak "a" esanez adierazten zuten aukera horri "bai" esaten ziola.

Egungo tresnak

Ikasgaiak lantzeko ordenagailua tresna garrantzitsua du, "eskaneatze automatikoa"ri esker. Eskaneatze automatikoarekin kurtsoreak banaka seinalatzen ditu pantailako aukerak, eta haurrak nahi duen hura seinalatzen duenean, okotzarekin klikatzen du

"konmutadorea" (xagu berezi bat da). Beraz, haurra bera bakarrik gai da ordenagailua erabiltzeko. Sistema horren bidez ariketa piloa egin ditzake; esaterako, kontzeptuak lotzea edo erantzun zuzena hautatzea.

Komunikazio pertsonalerako erabiltzen duen sistema, berriz, "Minspek" izenekoa da. Taula batean 32 irudi ditu eta irudiak binaka konbinatuz 1.000 esaldi edo hitz esan ditzake (bere aitaren ahotsa sartu diote aparailuari). Makinak banaka-banaka seinalatzen ditu irudiak, eta haurrak nahi duena hautatzeko okotzarekin klikatzen du konmutadorea.

Informatika ikasgaiak funtzio bat du

Informatika ikasgaiari zentzia eta erabilgarritasuna eman diote Haztegi ikastolan: ikasleei Power Point programa erabiltzen irakasten diete, euren sordezaten haur horrentzako materiala. Ikasleek, beste ikasgaietan lantzen ari diren gaiak Power Pointean azaltzen dituzte, irudiz eta soinuz baliatuta. Horrela, batetik ikasleek izugarri sakontzen dute beste ikas arloetan, eta Power Point menperatzera iristen dira. Bestetik, urritasun fisikoa duen haurra DBH 1 eta 2ra iristen denerako, jada ikasgaien materiala prestatua izango du. Material hori, gainera, ikasle guztien mesedetan egina da, edozein liburu baino dinamikoagoa eta erakargarriagoa baita.

Etorkizuna zuri-beltzean

Ikasgai edo arlo guztiak egokitzea posible dela frogatu dute euren esperientziaz, eta horrek aurrera begira ziurtasuna eta lanerako gogoia ematen die. Bestetik, informatikako aurrerapenei esker, laster haurrak ikastolan landutakoa etxeko ordenagailuan jarraitu ahal izango duela ikusten dute.

Denbora da, ordea, euren etsaia: programak euskaratu edo euren sortu behar izaten baitituzte. Garestiak dira, gainera, teknologia aparailu berriak. Amorrugari gehien sortzen diena, berriz, zera da: posible dela teknologia aurrerapenei asko eta asko egoera horietara egokitzea, eta aldiz, ez dela halakorik egiten. Haserre daude, ikusiz, hizkuntza bitartekoak nola arraio ez dauden garatuagoak.

Seaska

Irakasle arruntaren ardura eta gurasoen borroka



Ladix ARROSAGARAI

Seaskako Integrazio Batzordeko gurasoa



Amaia COLINA

Seaskako Aholkulari Pedagogikoa

Ladixek orain 6 urte Seaskara jo zuen bere bi nahiei erantzuteko sistema asmatzerik ba ote zen galdezka: adimen urritasuna zuen haurra euskaraz eskolatzea zen nahi bat, eta bestea gela arruntaren barruan izatea.

Amaia Aholkulari Pedagogikoa da. Irakasleei laguntzen die ikasgela barruan haur bakoitzaren neurriko heziketa prestatzen.

Elebitasuna eta gela arruntak amets

Behar bereziak dituzten 12 haurrek euskaraz ikasten dute egun Seaskako ikastoletan, ikasgela arrunten barruan. Ladixek ez zuen halakorik irudikatu orain 6 urte: *“Frantses estatuan zegoen aukera bakarra gela berezi batzuenan zen; bertan adin eta ahalmen urritasun ezberdinetako haurrak egoten ziren, eta gela ikastetxe arruntan integratuta egon ohi zen. Gure haurrarentzat banakako eskolatzea nahi genuen, baina ikasgela arrunt bateko partaide izanda, ez gela berezi batean”*.

Bigarren hesia euskaraz eskolatu nahi izatea zen: *“Erotzat hartu ninduten. Zentro berezietako psikologo, logo-*

peda eta psikometristen diskurtso ofiziala da adimen urritasuna dutenak ezin direla elebidun izan. Nahi hori dugun gurasoei leporatzen digute ez dugula onartzen gure haurraren urritasuna. Eta ez da hori kasua, badakigu gure haurra nolakoa den; den bezala onartzea baita baldintza zure haurraren alde borrokatu ahal izateko”. Hiru familia baino ez ziren hasiera hartan haurra euskaraz eskolatu nahi zutenak, eta “aditu” denek ezinezkoa zela esaten zieten. A zer lasaitua hartu zutena Hegoaldean euren begiz ikusi zutenean elebitasuna posible zela.

Seaskako Integrazio Batzordea

Integrazio Batzordea 1999an sortu zen, eta bere lan ildo garrantzitsuenak hiru dira: bata familiei sostengu morala ematea da. Beste lan ildoak Seaska mailan gogoeta bultzatzea da, gai horri buruzko koadro filosofiko edo politiko bat finkatzeke baitzegoen Seaskan. Egun, koadro hori zehaztu berrikan, errealitatean nola aplikatu ari dira lantzen.

Lan ildorik astunena eta larriena, berriz, hezitzaile bereziak ordaintzeko

dirua biltzea da. Frantses estatuak AVS izeneko postuak sortu ditu (“Auxiliaire de Vie Scolaire” edo “Eskola Bizitzarako Laguntzailea”). Baina eskatu adina postu ez ditu ematen Estatuak, eta hutsune hori Integrazio Batzordeak bete behar izaten du, hezitzaileak bere diruz ordainduz. Bestetik, AVS posturako ez da formazio berezirik eskatzen; irakasleari laguntzeko figura da, batez ere motrizitate arazoei erantzuteko pentsatua. Hegoaldeko esperientziak ikusita, hezitzaile bereziaren figura da bilatzen dutena Integrazio Batzordean, motrizitate beharrei soilik erantzun beharrean, adimen mailan ere haurraren zentratutako lanketa egin dezan.

Irakasle arruntaren ardura

“Irakaslea da haurraren benetako arduraduna”, hori argi du Amaiak. *“Hezitzaileak, aholkulari pedagogikoa eta abarrak irakasleari bere ardura betetzen laguntzen diogunak gara. Baina, azken ardura irakaslearena da”*. Amaiak irakasle bakoitzari laguntzen dio ikasgelaren barruan haurraren neurria egindako proiektua diseinatzeko. Beldurra izaten da irakasle ohi-ko erreakzioa halako erronka berri baten aurrean, bere buruarengan ziurtasunik eza, bakardade sentsazioa. Funtszkoa da irakasle talde osoa inplikatzeko, erabakiak eta irudipenak norekin kontrastatu eduki ahal izateko. Amaiak dioenez, *“ikastola batean haur bat onartzen delarik, irakasle talde osoak onartu du, denak daude inplikaturik. Eta bihar haur horrek beste irakasle bat izango duenez, irakasle guztiek izan behar dute bere urratsen berri”*.

Haurraren beharrei ikasgela barruan erantzutea da oinarria, nahiz kasuak eskatzen duenean ikasgelatik irten. Irakasleak, ikusita zer talde duen eta haur horrek zer lanketa eskatzen duen, zehaztu egiten du zer behar izango dituen proiektua aurrera ateratzeko. Kasu gehienetan AVS edo hezitzaile bat behar izaten dute. Irakaslearen hasierako beldurrek amaieran zapo gozoa izan ohi dute, Amaiak dioenez; halako esperientzia batek asko ematen du eta.

Adarra

Pedagogi Erakundea



Gezurra da idealak ez direla existitzen; onak direla eta eduki egin behar direla pentsatzen jarraitzen dugu. Ez da gauza bera modu batera edo bestera lan egitea, ez eskolarentzat, ez irakasle taldearentzat eta ez ikasleentzat



Adarra

Pedagogi Erakundea

E

Orain dela urtebete kolektibo bezala zentzurik ba ote genuen hausnartu genuen eta baietz ikusi genuen. Zentzua ikusten diogu modu libre batean (inplako baldintzarik gabe) elkartzeko, hausnartzeko, kontrastatzeko, analizatzeko, gaitzesteko, proposamenak egiteko leku bat izateari. Gure artean eztabaidatu ondoren, benetan leku horren beharra eta horrelako bat bultzatzeko gogoa bagenituela ikusi genuen

Euskal irakaskuntzan urte batzuk daramatzen edonork ezagutuko du Adarra Pedagogi Erakundea. 70eko hamarkadaren amaieran sortu zen eta 80ko hamarkadan izan zuen loraldia. Pedagogi berrikuntzaren inguruko hausnarketak eta lanak eskola elkarte osoari luzatzen zizkion Adarrak eta bere ahotsa Euskal Herriko eskola guztietan entzuten zen. Erreferentzia garrantzitsua bilakatu zen, eta horren lekuko dira udako jardunaldiak eta argitalpenak.

90eko hamarkadan bere presentzia publikoan apaldu egin bazen ere, lanean jarraitu zuen, eta aurten 25 urte bete ditu. Hausnarketa bat egin ondoren, oraindik bere lekua eta zeregina badituen erakundea dela erabaki zuten bazkideek eta bultzatzaileek, eta Adarrak aurrera jarraitu du. Begoa Iasa lehendakariak eta Trini Rubio idazkariak halaxe erakutsi digute.

Adarra Pedagogi Erakundeak 2003. urtean ospatu du bere 25. urteurrena. Erakunde horren sorrera trantsizio garaian kokatzen da, beraz. Nolako giroa bizi zen une haietan hezkuntzaren alorrean?

Bi garai bereizi beharko genituzke: Francoren diktaduraren garaia eta haren heriotzaren ondorengoa. Lehenengo etapan hainbat taldek ziharduen lanean, proposamenak eta alternatibak prestatzen, baina isilpean eta ezkutuan. Franco hil ondoren kaleratu ziren aurretik egosten ari ziren ideiak eta taldeak.

Zentzu horretan, Euskal Herrian irakaskuntzako profesionalak osatutako zenbait talde zeuden, eta batez ere bi hutsune bete nahian

ze-



bil-

tzan:

sindikaturik eza eta maila politikoan sortzen ari zen eskola publikoaren alternatibarekin koherentea zen lerro edo ideia pedagogikorik eza. Talde horiek, hausnarketak eta eztabaidak egiteaz gain, irakasleentzako hainbat ekintza, ikastaro eta jardunaldi antolatzen zituzten. Euskal Herriko talderik esanguratsuetako bat Gordailu izan zen, besteak beste, irakasleentzako udako jardunaldiak antolatzen zituen.

Bizkaian Asociación de Maestros Católicos izeneko erakunde bat zegoen. Gu bertako bazkide egin ginen eta irakasle ikasketak bukatzen ari ziren edo bukatu berriak zituen beste asko ere bai. Erakunde horretaz baliatu ginen gure artean elkartzeko eta gure kezka pedagogikoez hitz egiteko. Ezzi-

tzaigun gustatzen orduko eskola, aldatu egin nahi genuen, eta horretarako bildu beharra geneukan. Horrela, talde horrek babesa eman zigun eta han sortu ziren irakasleen lehen aldarrikapenak, bai pedagogikoak eta bai sindikalak. Hortik sortu zen STEE-EILAS sindikatua eta hark hartu zuen gaisindikalen ardura. Une hartan arlo pedagogikoko militantzia eta arlo sindikalekoa oso lotuta zeuden eta ideologikoki gure erakundea oso pluralista izan da beti. Elkartean gelditu ginenon ardurak pedagogiari lotuagoak zeudenez, arlo hori lantzen jarraitu genuen.

Horrela, 1973an antolatu genituen lehen jardunaldiak Bilboko apezpikutzan eta polizia zapuztu egin zituen. 1974an, 75ean eta 76an Bilboko Errekalde auzoko ikastetxe publiko batean egin genituen eta 300-400 irakasle artean bildu ginen bertan.

Gipuzkoako Lizentziatuen Kolegioak ere berrikuntza pedagogikoa bultzatu zuen eta erreferentzia bilakatu zen Batxilergoko irakasleentzat. Araban Freineten inguruko talde bat zegoen eta hura bihurtu zen berrikuntzaren lehen plataforma. Nafarroaren kasuan bi mugimendu esanguratsu zeuden: Asociación Católica de Maestros (Bizkaikoaren antzeko eboluzioa izan zuena) eta Freinet taldea.

Talde horien artean harremanik bala zegoen?

Nahiz eta ikuspegi desberdina izan, talde guztiek hainbat puntu zituzten komunean eta euren planteamenduen arteko gerturatze bat sortu zen. Horrela, 1977an denek elkarrekin antolatutako lehen jardunaldiak egin ziren Leioan eta hainbat helburu planteatu ziren. Lehendabizi, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako maila guztietako irakasleen topagune bat bideratzea, esperientzia metodologikoak eta didaktikoak trukatzeko; bigarrenik, euskal eskolaren helburuekin bat zetorren ildo pedagogikoan sakontzea; eta hirugarrenik, irakasleen artean zegoen kezka zabaltzea, hezkuntza sistema sakonean aldatzeko gai izango zen mugimen-

du pedagogiko baten oinarriak jarri ahal izateko.

Jardunaldi haietan talde pedagogiko bat sortzeko beharra ikusi zen eta hortik eratu zen Adarra. Orduan, 1977an erabaki zen Adarra sortzea eta 1978an estatutuak erregistroan entregatu ziren, nahiz eta asko kostatu. Izan ere, Euskal Herri osorako estatutuak zituen eta Madrilen onartu behar ziren. Han geldituta egon ziren, baina azkenean lortu genuen.

Zergatik ezarri zitzaion Adarra izena?

Euskaldunek antzina batak besteari deitzeko erabiltzen zuten komunikazio tresna adarra zenez eta guk ere elkarri deitu nahi genionez eta bildu nahi genuenez, hortik sortu zen. Ideia eta izena, biak gustatu zitzaizkigun.

Zein zen sorrerako helburu nagusia?

Elkartzea, esperientziak trukatzea eta eskola aldatzea. Batez ere azken hori: eskola aldatzea. Garai hartako eskolak orduko beharrei ez ziela erantzuten ikusten genuen eta aldatu egin nahi genuen. Orduko pedagogia tradizionala alde batera utzi eta haurraren zentratutako eskola nahi genuen. Antolaketa ere aldatu nahi genuen, aurrerapausoak baino atzerapausoak baitzertartzen. Eskolak ez zion gizaritari erantzuten.

Zein aldaketa aldarrikatzen zenuzuten zehazki?

Lehenengo eta behin “hezi” egin nahi genuen, eta ez “irakatsi soilik”. Gure dokumentuetan “heziketa” hitza agertzen da, hau da, guretzat eskola irakastea eta eduki batzuk ematea baino zerbait gehiago zen.

Haurraren, bere psikologian, interesetan, ingurunean eta errespetuan zentratutako eskola nahi genuen. Haurrak bere nortasuna garatzea zen garrantzitsua, eta irakasleok laguntza eman behar genion. Haurrak ekin zuten antolaketa eta bitartekoen sozializazioan parte hartzearen aldekoak ginen, bere autogestioa ahalik eta gehien garatu ahal izateko.

Desberdintasun guztiak (sexua, gaitasunak, klase soziala, arraza, ideologia...) alde batera uztea eta hezkidetzaren bultzatzea aldarrikatzen genuen. Zentzu horretan, gela “bereziak” kentzea, eskola doakoa izatea eta ideologikoki plurala izatea eskatzen genuen.

Dena dela, gure ezaugarri bat zera izan da: aldaketak bilatzea, baina beti alternatibak eta proposamenak bilatuz, ez kritikatu soilik. Kritikan soilik gelditu gabe bideak bilatuz jardun gara beti: aldaketak zein printzipiori jarraitu behar zion eta zein esperientzian oinarritu behar genuen proposatuz.

Orain, urte hauek guztiak pasatuta, helburu haiek bete direla uste al duzue?

Gauza asko aldatu dira, ikaragarri. Adibidez, garai hartan guraso elkarrekin ez ziren existitzen. Are gehiago, gelako



Adarra

Pedagogi Erakundea



Elkartzea,
esperientziak
trukatzea eta
eskola aldatzea
ziren gure helburu
nagusiak, batez ere
azken hori: eskola
aldatzea. Ez
zitzaigun gustatzen
orduko eskola,
aldatu egin nahi
genuen, eta
horretarako bildu
beharra geneukan

gurasoak biltzea debekatua zegoen. Guri ikastetxeko zuzendariak berak debekatu zigun. Pentsa gauzak zenbat debekatu diren! Baina gizartea ere aldatu egin da eta berrikuntza pedagogikora-ko mugimenduek ere aldatu egin behar dutela iruditzen zaigu. Uste dugu Adarraren nahiz pedagogi berrikuntzarako estatu espainiarreko beste mugimendu batzuen sorrerak gizarte jakin bati erantzuten ziola: gizarte industrialari. Gaur egun bestelako gizarte batean bizi gara, informazioaren gizartean, eta pedagogi berrikuntzarako mugimenduek aldatu egin behar dute.

Eskolako gauzak asko aldatu dira, baina gizartea ere aldatu egin da eta badirudi gizartea beti atzetik doala. Garai hartan uste genuen egoera politikoa-ren eraginez zihoala eskola atzetik, baina badirudi eskolaren patua beti aldaketa sozialen atzetik joatea dela.

Adarraren udako jardunaldiek arrakasta itzela izan zuten. Zergatik? Zer eskaini zuten?

Kontuan izan behar dugu garai hartan jardunaldi haiek zirela zeuden bakarrak; gauza berriak ikastera joan zintezkeen leku bakarra zen, hausnartzera eta eztabaidatzera joan zintezkeen toki bakarra, hezkuntzarekin lotutako gaiak lantzen ziren leku bakarra. Mota

guztietako ikastaroak zeuden, hasi eskolaren funtzioari edo paperari buruzko hausnarketetatik eta saskigintzara arte. Alde batetik, edukia lantzen zen: Euskal Herriko historia, zeramika, irriati lantegia, psikomotrizitatea, matematika, filosofia... Eta bestetik, eduki horiek irakasteko metodologia eta didaktika: nola irakatsi gai horiek, gela nola antolatu talde txikitan, nola irakatsi irakurtzen...

Irakasleen etengabeko prestakuntza pedagogiako mugimenduen eskuetan zegoen. Abuztuko azken astean egiten ziren jardunaldiak, ikasturtea hasi aurretik eta Euskal Herriko hiriburuetan nahiz herrietan txandakaturik antolatzen ziren. Hasieran, 1977an, 1.000 lagun bildu ginen Leioan, eta 1980an Donostian egiten ziren jardunaldietan 3.000. Hurrengo urteetan kopurua jais-ten joan zen eta beste jardunaldi mota batzuk antolatzen hasi ginen.

Zer dela eta utzi zenioten udako jardunaldiak antolatzeari 80ko hamarkadaren bukaeran?

Jardunaldietara etortzen zen jende kopurua gutxituz joan zen, baina horrek ez gintuen kezkatzen, logikoki beste eskaintza batzuk sortu zirelako baitzen.

Pixkanaka-pixkanaka gauzak aldatuz joan ziren, ordea: Eusko Jaurlaritz



sortu zen, hezkuntza eskuduntzak lortu zituen, errekurtsioen zentroak sortu ziren, irakasleen zentroak ere bai... Logikoki, instituzioak prestakuntza beren gain hartzen hasi ziren. Izan ere, irakasleen etengabeko prestakuntzak ez du zertan irakasleen erantzukizuna izan, instituzioena da erantzukizun hori. Modu horretan, eskaintza instituzionala handituz zihoan neurrian, gurea txikituz joan zen. Zeren, ez baitzuen zentzurik biek eskaintza bertsuak egiten jarraitzeak. Guk ideiak ematen eta eskariak egiten genituen, baina eskaintza gutxituz joan ginen, nahiz eta Iraprest eta Garatu deialdietan ikastaroak eman. Horrekin batera eztabaidetan eta hausnarketetan zentratu ginen, hots, instituzioek egiten ez zituzten gauzetan. Aldaketa horrek, noski, gure presentzia publikoa ere gutxitu egin zuen. Administrazioak bere egitekoa bete ahala, gure ahotsa gutxiago entzun da eta barruko lanari garrantzi gehiago eman diogu kanpokoari baino.

Adarraren presentzia publikoa gutxitzeak eraginik izan al zuen bazkideen kopuruan?

Bai, baina ez horrek bakarrik. Zenbait gairen inguruan jarrera jakin bat hartu izanak ere bai, eta oro har, gizarte-ko mugimenduen beherakadak ere bai. 750 bazkide izatera iritsi ginen, eta gaur egun 300 gara.

Hasieran ibilbidea Bizkaian hasi eta Euskal Herri osora zabaldu bazen, denborarekin berriro Bizkaira mugatu da. Oraindik ere lau lurraldeetan ditugu bazkideak, baina besteetan Bizkaian baino askoz gutxiago.

Berrikuntza pedagogikorako mugimendu guztiei gertatu zaien bezala, garai batean denok gauza guztietan izena emanda geunden, eta gaur egun, aldiz, gurea bezalako erakunde bateko bazkide izatea eta parte hartzea gainbeheran dago. Dena dela, 30-40 laguneko nukleoa biltzen gara, eta ez da gutxi.

Zer eskaintzen du gaur egun Adarrak? Zentzurik ba al du?

Orain dela urtebete egin genuen hausnarketa hori, hau da, kolektibo be-



zala ea zentzurik ba ote genuen edota elkartu gintuzten zioek jada ez zeukaten zentzurik. Berrikuntza pedagogikoko espazioak beste elkarte edo instituzio batzuek ez ote zituzten betetzen eta gu egitekorik gabe ote geunden hausnartu genuen. Azkenean, ondorio bat atera genuen: zentzua ikusten geniola modu libre batean (inolako baldintzarik gabe) elkartzeko, hausnartzeko, kontrastatzeko, analizatzeko, gaitzesteko, proposamenak egiteko... leku bat izateari. Gure artean eztabaidatu ondoren, benetan horrelako leku bat izateko beharra eta gogoia bagenituela ikusi genuen.

Beste modu batera esanda, gaur egun administrazioak ikastaroak eta hausnarketarako guneak eskaintzen ditu, baina guk leku baten beharra sumatzen dugu nolabait libreago hausnar dezagun. Eta horregatik ondorioztatu dugu Adarrak zentzua izaten jarraitzen duela. Hori ikusirik, Adarraren ekin-tzak birplanteatu egin ditugu. Oraingo hezkuntza helburuak zein diren eta gizarte honetan zeri erantzun behar diogun planteatu dugu, eta mundu guztia- ren ahoak betetzen dituzten hainbat hezkuntza printzipio ahoa betetzetik praktikan egia bihurtzen ahalegindu behar dugula ikusi dugu. Inork ez du ukatzen heziketa behar dela, heziketak kultur aniztasunean oinarritu behar duela, ulerkorra izan behar duela, desberdintasunak gainditu behar ditue-

la... Gai horiek guztiak printzipioen deklarazio hutsean gelditzen dira eta hori behin eta berriz nabarmendu behar dugula ikusten dugu.

Planteamendu berri horretatik abiatuta, zer daukatzue orain esku artean?

Erakundearen antolaketa berriztatut dugu eta orain aurrerapausoak emateko formak eta formulak bilatzen ari gara. Esate baterako, Adarrako lan taldeak aldatu egin dira, nahiz eta historiko batzuek jarraitu (Haur Hezkuntza, irakasleak ijitoekin...). Matematika, hizkuntza, teknologia, zehar lerroak, natura eta ikasgai desberdinen inguruko lan taldeak desagertu egin dira eta beste berri batzuk sortu: desberdintasunak gaindituz, etorkinak eskolan... Beste elkarte batzuekin batera ere egin dugu lan.

Barne hausnarketa eta hezkuntza elkarte osoari bideratutako hausnarketa konbinatuko ditugu kezka sortzen diguten gaien inguruan, besteak beste: nola landu kanpotik datorren ikaslearen harrera, nola landu ikasle ijitoen eskolatzea, nola landu 0-3 zikloa benetan hezitzailea izan dadin... Kanpoan horren guztia- ren inguruko hausnarketa egiteko aukerarik ez dugu topatzen, eta horixe da Adarrak eskaintzen duena.

Ikasturte honetan landuko ditugun gaiak hauek izango dira: eskola eta ingurunea, eskolako jolaslekuak eta hez-

Adarra

Pedagogi Erakundea

E

Mundu guztiaren ahoak betetzen dituzten hainbat hezkuntza printzipio ahoa betetzetik praktikan egia bihurtzen ahalagindu behar dugula ikusi dugu. Inork ez du ukatzen heziketa behar dela, heziketak kultur aniztasunean oinarritu behar duela, ulerkorra izan behar duela, desberdintasunak gainditu behar dituela

kuntza eta immigrazioa. Eta gai horien inguruan deialdiak zabaltzeko asmoa daukagu. Ekintza horiek bultzatzearekin batera, beste lan mota batzuk ere egiten ditugu eta harremanak ditugu eta bildu egiten gara Berrikuntzarako Mugimenduen Federazioarekin, ijitoen elkarteekin, eta zenbait unibertsitatekin eta giza erakunderekin.

Nola ikusten duzue irakasleen mugimendua gaur egun?

Hor gai larri bat dago. Irakasle batez besteko adina 47 urtekoa da eta hori gure sektorean soilik gertatzen da. Jende gaztea ere badago, baina oso gutxi. Ondorioz, Adarran orain dela 25 urte hasi zen jende bera gaude gaur egun. Horrek arazo bat ekarriko du: denok batera jubilatuko garela, hots, bat-batean jende asko jubilatuko dela.

Gainera, irakaskuntzan sartzen diren gazte gehienak egoera ez egonkorrean daude eta Musika, Ingelesa, Heziketa Fisikoa eta horrelako ikasgaietan. Klaustroetan jende gazte gutxi dago eta gazteak sartzeari beharrezkoa da; hori da gure erronka. Guk Asociación de Maestros Católicos erakundeko irakasleak "zaharrak" ikusten genituen eta agian gu ere hala ikusiko gaituzte oraingo gazteek. Bada, kontraste hori ikusteko gogoz gaude eta txanda emateko prest.

Nola definituko zenukete 70eko hamarkadaren amaierako irakaslea eta gaur egungoa?

Garai hartan ilusio handia zegoen eta inplikazioa handia zen eskoletan. Ez zen lana soilik, gehiago baizik. Euskararen alde borrokatzen zenean, edo irakurketa-idazketa beste metodologia batekin egitearen alde edo musika irakastearen alde egiten zenean, ez zen lana eta kito, banoa. Irakasle ikuspuntuetik ez ezik, pertsona ginen neurrian ere inplikatzeko ginen; ez profesional izateagatik soilik, inplikazioa handiagoa zen. Hori zen ezaugarrietako bat.

Garaia ere halakoa zen. Inplikazioaz gain, militantzia zegoen. Batzuek militantzia politikoa zuten, beste batzuek sindikala eta beste batzuek pedagogikoa. Beste modu bateko militantzia zen, baina militantzia zen.

Eta idealak zeuden. Idealak funtsezkoak ziren. Gezurra da idealak ez direla existitzen, ideologiak ez direla existitzen eta dena berdina dela. Idealak onak direla pentsatzen jarraitzen dugu, idealak eduki egin behar direla, ideologiak existitzen direla eta dena ez dela berdina. Ez da gauza bera modu batera edo bestera lan egitea, ez eskolarentzat, ez irakasle taldearentzat eta ez ikasleentzat. Ez dira emaitza berak ateratzen.

Garai hartako faktore politikoa ere oso garrantzitsua izan zen. Denok dik-



taduraren aurka bilduta geunden, aldatu behar zen helburu komun eta bakarra zen. Bakoitzak bere lekutik aldatzen zuen, eta guk eskolatik eta alderdi pedagogikotik.

Desberdintasunak gainditu nahi baldin badira, ez da gauza bera era batera edo bestera lan egitea. Ez du denak balio. Ideologien nahasketa hori eta inplikazio hori da azken finean aurrera ateratzen dena. Eta



gaur egun ere badago, baina ez orduan bezain orokortua edo zabaldua.

Adarra sortu zenean 70eko Hezkuntzako Lege Orokorra zegoen indarrean. Ondotik etorri ziren LOGSE eta LODE. Nola bizi izan ditu Adarrak aldaketa horiek?

Adarra oso inplikaturata egon da aldaketa horietan. 70eko legea eginda zegoen, baina estutzen aritu ginen, etengabe gauzak planteatzen. Esate baterako, "programas renovados" direlakoetan Adarrako jende asko jardun zen.

Zer izan ziren "programas renovados" horiek?

Hezkuntza programak eta orain curriculum deitzen diren horiek 80ko hamarkadara egokitzeko saiakerak izan ziren. 70eko legea bere garaian iraultzailea izan zela uste zen, baina ez zen izan eta egokitu beharra zegoen. Horrela, zikloak aldatzen hasi ziren eta, gero, OHOk 2. etapa. Planteamendu berriak sortu ziren eta hor Adarra inplikatu zen.

Gero aldaketa orokorragoa planteatu zen eta hori guztia egituratzeko sortu zen LOGSE. Maila curricularrean, hizkuntzen arloan eta abar betidanik egin izan ziren aldarrikapenak bildu zituen LOGSEk. Horrek ez du esan nahi gero praktikan ezarri zirenik, baina jaso, jaso ziren.

Nola baliosten duzue LOGSEren ezarpena?

Oso kasu gutxitan eraman da praktikara metodologia. Haur eta Lehen Hezkuntzan zenbait gauza egin dira, baina Bigarren Hezkuntzan oso gutxi. Aldaketek eskatzen zuten inbertsiorik ez zen egin, edo behar zena baino gutxiago, eta horrek mugatu zuen bere ezarpena.

Zer iritzi duzue Kalitate Legeari buruz?

Inongo planteamendurik gabeko legea da. Adarran aztertu genuen eta ez dauka ez planteamendurik, ez irizpiderik, ez inongo oinarririk. Atzerapauso handia da alderdi guztietan, eta gainera, ez dauka inolako oinarririk esaten dutena esateko edo proposatu nahi dutenerako. Gure iritzia argi geratu zen Euskadiko Eskola Kontseiluaren bileretan eta txostenean parte hartu genuenean.

Zer uste duzue, praktikan aurrera eramango dela edo orain artekoari eusteko aukera egongo dela?

Hori ez da inoiz jakiten. Guk praktikara eramango ez duten esperantza daukagu. Aldaketa praktikoak oso mantso joaten dira eskolan; lehendabizi legeak eta araudiak aldatzen dira eta eguneroko praktika gehiago kostatzen da.

Beste kasu batzuetan oztopoa izaten da legea aldatu ondoren eskolari hainbeste kostatzea. Ea oraingoan alderantziz izaten den eta hoberako den. Ea eskolak aldaketa horiei erresistentzia erakusten dien. Gainera, EAEn Eusko Jaurlaritza legearen aurka agertu da eta, beraz, gutxienerako araudiak bete dituzan espero dugu.



Kalitate Legeak planteatzen duen gauzetako bat ibilbideena eta ikasleen sailkapenerena da. Zer iritzi duzue horren inguruan?

Legea praktikara ez eramatea espero dugula esaten dugunean, kontziente gara gure komunitatean jada badaudela ibilbideak, nahiz eta ezkutuan izan. Ez zaie horrela deitzen, baina bere garaian gizarte osoaren euskalduntzea errazteko sortu ziren hizkuntza ereduak gaur egun kasu askotan bereizketak sozialerako faktore bilakatzen dira, ez baitute helburua lortzen. Zentzu horretan, A, B eta D eredu ordez behin-goiz komunitate osoa euskalduntzeko balioko duen eredu komun bat aldarrikatzen dugu. Bestela, zenbait ikasle, bere maila sozialaren eta jatorriaren arabera, zentro edo eredu konkretu batzuetan pilatzen dira eta horrek bereizketari bide ematen dio. Ikasle etorkin asko A eredu ordez pilatzen ari da, eta ez da ez eredu bakarria ez ikasle horientzako eredu.

LOGSEren kasuan, erabat ezartzera iritsi ez zenez, birplanteaketa bat egiteak zentzurik ez zuela aipatu dugu, nahiz eta PPkoek hori egin. Ereduen kasuan, ostera, alderantzizkoa gertatzen da. Emaitzak badaude eta bada garaia aldaketak egiteko.

Ereduek berrikuspen bat behar dute. Helburua biztanleria guztia euskalduntzea da, eta hori ez dela lortzen ikusi da. Ondotik, zenbait hausnarketa egin da, baina prozesua mantso doa. Gainera, ereduak beste interes batzuen ikur bihurtzen dira eta ez heziketakoak, hain justu. Horrek dena gelditu egiten du. Gai honek asko kezkatzen gaitu.



Eskultorea naiz



Eskultorea naiz, horixe esanez bukatu zuten iazko ikasturtea Donostiako Intxaurren Hegoa ikastetxeko haurrek. Zazpi astean zehar aurrera eraman zuten proiektua izan zen horren erantzule.

Ikastetxeko hiru irakaslek "Nola landu ingurumena Haur Hezkuntzan" izeneko ikastaroa egin zuten CEIDAn eta horren ondotik bi ideia zituzten buruan: alde batetik, eguneroko bizitzan sortzen diren hondakinez ohartarazi nahizituzten ikasleak; eta bestetik, zenbait hondakin mota berrerabiliz eskulturak eginarazi nahi zizkieten. Horrela, ideia bi horiek garatzeko prestatu zuten proiektu hau.

Intxaurren Hegoa ikastetxean 182 ikasle dabilta, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 2. mailaraino. Iaz, ordea, 1. mailaraino zeuden eta guztiek hartu zuten parte proiektuan: 2, 3, 4, 5 eta 6 urtekoek. Noski, adin bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu zituzten ekintzak planteatzeko garaian.

Denak lanean

Ingurumena, hondakinak, berrerabilpena, birziklatzea... elementu horiek eskulturaren edo artearen bitartez lantzea egokia zela ikusi zuten irakasleek. Izan ere, haurrei ondo pasatzeko eta gozatzeko aukera emateaz gain,

hainbat alderdi lantzeko parada ematen du. Eta halaxe egiaztatu dute egindako ekintzen bitartez.

Lehendabiziko lana hondakinak existitzen direla jabeaztea izan zen, askok ez baitzekiten etxean hondakinak pilatzen direnik, eta are gutxiago horiekin zer egiten den. Horrela, gelan materiala biltzeari ekin zioten, "gure eskolan gurasoen partaidetza oso handia izaten denez, material mota multu egin genuen, bestela izugarri pilatuko baitzen" argitu digu Isabel Garmendia irakasleak. "Tetra-brik ontziak, komuneko paperen tutuak, plastikozko botilak eta kartoizko kaxak ekartzeko esan genien, ez bestelakorik". Etxetik eramandako hondakinentzako txoko bat antolatu zuten eta material horiekin jolasten eta esperimentatzen aritu ziren: materiala puskatu gabe eta puskatuta, banaka eta taldeka, material batekin eta bat baino gehiagorekin... Ondoren, hondakinekin bakoitzak eskultura bana egin zuen. "Materiala manipulatzeko jarraitzen zuten bitartean bakoitzak eskultura bat egin beharko zuela esan genien eta zer egingo zuten pentsatzen joateko" azaldu digu Jon Cambronerok irakasleak. "Astebete eman zitzaizkien pentsatzeko: zer egin, zer neurritakoa, zer material ez, nola lotu piezak elkarrekin, zer izenburu jarri, banaka edo norbaitekin egingo zuten... Oso motibatuta eta ilusio handiz aritu ziren, gero erakusketak bat antolatu behar baikenuen".



"Materialaren eraldaketa: hondakinetik eskulturara" izenburua jarri genion erakusketari" dio Lolik. *"Kontu handiz prestatu zuten dena, eskultura bakoitzari bere txartela jarriz, eskultura egiteko jarraitu zituzten pausoak horma irudian jarriz, eskultura jartzeko tokia bilatuz eta gurasoei erakusketa ikustera etortzeko gonbidapenak idatziz".*

Beste ekintzetako bat antzerkia izan zen. 4 eta 5 urteko haurrek antzerkia prestatu zuten 3 urteko haurrentzat. *"Ipuin baten bidez zaborren gaia landu genuen eta beraiek lurrera zaborrik ez dutela botatzen adierazi zuten. Euren anai-arreba txikiak, ordea, batzuetan botatzen omen dute, txikiak direlako. Orduan, txikiei irakasteko, antzerki bategi-tea proposatu nien eta oso gustura onartu zuten ideia"* azaldu digu Isabelek.

Kaleko eskulturak

Aldi berean, gelatik at ere ibili ziren eskulturak ikusiz. *"Intxaurrondo auzoan eskultura asko daude, baina askotan ez gara ohartzen hor daudenik ere"* dio Jonek. *"Haurrei ere gauza bera gertatzen zaie. Ez zekiten eskulturarik zegoenik ere"*. Horregatik, aurkikuntza bat izan zen eurentzat auzoko eskulturak ikustera joatea, behatzea, ukitzea, auzoko planoan kokatzea, fitxak osatzea, egileak ezagutzea, argazkiak ateratzea, zer materialez eginak dauden ohartzea... Irteeran bertan zein aurretik eta ondoren landu zituzten horiek denak.

Auzotik atera eta Txillida-lekura ere joan ziren egun batean. Bertan haurrei bideratutako ekintzak egin ohi dituzte, baina inoiz ez ziren hain haur txikiekin jardun. *"Ez ginen haur guztiekin joan, 5 eta 6 urtekoekin baino ez, eta oso esperientzia polita izan zen, haurrak oso gustura ibili ziren"* baieztatu digu Isabelek. *"Ordubete luzeegia izango zela komentatu ziguten, baina azkenean ordu eta erdi egon ginen, eta planifikatuta genituen ekintza guztiak egin gabe gelditu ginen, gainera!"*. Haurrentzat izugarria izan omen zen eskultura handien inguruan ibiltzea, ukitzea eta soinuak entzutea.



Nola bukatu?

Prozesua bukatzeko nolabait eskulturekin zer egin erabaki behar zuten, eta ez zela gauza erraza izan diote hiru irakasleek. *"Batzuek oso bereak egin zituzten eskulturak eta ez zituzten bota nahi. Horregatik, etxera eraman zituzten. Beste lan batzuen materiala birziklatzeko ontzietara bota genuen eta beste batzuekin denda bat antolatu zuten eta elkarki saltzen aritu ziren"*. Gurasoek ere komentatzen omen dute orain etxean ezer ezin dela bota, denak balio omen du.

Dudarik gabe, haurrak buru-belarri aritu dira materiala biltzen eta material horrekin esperimintatzen, ikasten eta gozatzen. Hala dio 3 urteko haurrekin aritu zen Loli Goienetxe irakasleak. *"Lasaitasuna nabaritzen zitzaieen haurrei. Saioak egin ahala, isiltasun eta lasaitasun gehiago nabaritzen zen, beste lanekiko errespetu handiagoa, eta materiala hobeto zaintzen dute"*.

Era berean, eskulturari, ingurumenari, berrerabilpenari eta birziklatzeari buruzko gauzak ikasteaz gain, beste hainbat elementu ere landu dituztela azpimarratu digu Jonek. *"Neurketak egin zituzten materialekin, eta pisua, formak, neurriak eta abar ikusi eta manipulatu ere bai. Matematikako, plastikako eta hizkuntzako elementu ugari landu genituen"*.

Isabelek dioenez haurrek zuzenean bizitako eta esperimintatutako prozesu bat izan da. *"Material ezezagunekin kontaktuan jarri dira eta sorpresa izan da zenbait materialekin gauzak egin daitezkeela ikustea. Eta horrez gain, gozatu egin dute"*. •



Kantuz Blai



Gasteizko Ikasbidea ikastolan musika irakaslea da Iaki Iasa. DEHko plaza utzi eta Lehen Hezkuntzara etorri zen Iaki, jabetzen baitzen kantua txiki-txikitatik landu behar zela, eta lan horri norbaitek heldu beharko ziola. Kantuz Blai izeneko txapelketa asmatu zuen, kanturako motibazio iturri eta urteko lanaren erakusleiho izan zedin. Bederatzi aldiz egindute Kantuz Blai, eta euren esperientziaz busti gaitzen, hitz-jasana aritu gara Iakirekin.

Zer jaialdi mota da "Kantuz Blai"?

Aste Santuko oporren aurretik egiten dugun kantaldia da. Lehen Hezkuntzako ikasleek hartzen dute parte. 1. zikloko gela bakoitzak bi abesti kantatzen ditu. 2. eta 3. zikloetan, berriz, gelen arteko lehia dago. Urtero txapel bera dago jokoan, zein gelatara joango.

Bestetik, bakarlariren, bikoteen eta talde txikien arteko lehiaketak ere badaude. Bakarlariak gutxi izaten dira, eta bikoterik ez zen izan iaiz.

Aurreko ikasturtean 430 haur pasa ziren agertoki gainerik. Ez da inorgelditzen oholtzara igo gabe. Hori da gelen arteko lehiaketaren helburua: haur guztiak parte hartzea. Guztira 50 abesti inguru abesten dituzte ordu eta erdiko emanaldian; abesti zaharrak dira gehienbat, eta iaiz maitasunaren ingurukoak denak, gai monografiko gisa horixe hartu baikenuen jaialdiari osotasuna emateko.

Zergatik planteatzen duzue lehia moduan?

Lehia pixka bat beharrezkoa dela oso garbi dut. Lehiarik ez dagoen lekuetan, denborarekin erori egiten dira halako jaialdiak. Gainera, euskaldunoi gustatu egiten zaigu jokatzea. Lehia behar da; edonola ere, saiatzen gara pixka bat leuntzen, noski. Esaterako, jaialdi osteko askaria Lehen Hezkuntza guztia eskaintzen zaio, ez 1. zikloari soilik. Bikoteei eta ematen dizkiegun sariak ere oso apalak dira.

Txapela jokoan denean desilusiak ere hartzen dira, ustez oso ondo kantatu dutelako eta ez dutelako irabazi. Baina bizitzan askotan tokatuko zaie galtzea, eta hori ere gelan landu egin behar da. Traumarik ere ez da sortzen horrekin.



Zertarako da "Kantuz Blai"?

Batetik, motibazioa indartzen duen ekintza da. Bestetik, egindako lana erakusteko modu bat da jaialdia. Emaizta hori prozesu baten ondorio da. Abiapuntua ez da kantaldi bat egitea; kontua ez da lau abesti aukeratu eta "igo agertokira" esatea. Haur horiek lehendik ez baldin badute abesteko ohiturarik, oso zaila da ongi ateratzea. Perfekzioa ere ez dugu bilatzen, ezta gutxiagorik ere. Ongi pasatzeko jaialdi bat da. Baina agertokian ongi pasatzeko ere, aurretik abesteko ohitura bat behar duzu, urte osoan ere kantagintza lantzea behar duzu.



Eta nola lantzen duzue kantagintza urtean zehar?

Urtean zehar kantu zaharrak eta berriak lantzen ditugu. Kantu zaharrak euskararekin lotura duten abestiak dira. Bertsogintzarekin, bertso neurriekin eta doinuekin lotuta daude. Elkar argialetxearen liburuen metodoa erabiltzen dugu eta urtean 6-7 abesti zahar ikasten dituzte.

Abesti berriek, aldiz, musikarekin zerikusi zuzenagoa dute. Imanol Urbietarenak izaten dira gehienak, jarraitzaile amorratua naiz eta.

Urtean zehar batez beste 14 abesti ikasten dituzte. Horrek esan nahi du, sei urte pasa ondoren, Lehen Hezkuntzaren amaieran, abesti mordoxkako oinarria dutela.

Ikasturtean zehar haurrek kantua ez dute musika gelan soilik lantzen, ezta?

Halaxe da. Hemengo irakasleekin akordio batera iritsi nintzen, musika gelan lantzen diren abestiak eurek ere gelan abes ditzaten. Musikan astean hiru ordu laurdeneko saioa besterik ez dugu. Nik antolatzen dut Kantuz Blai, baina gero gela bakoitzean irakasleak ere lantzen du, inplikazio handia dago. Eta eskerrak horri.

Gauza bat ikasi dut: zu konbentzitu bazu zerebait garrantzitsua dela, hasi egin behar duzu egiten. Itxaroten bazu zere, *"hau egin behar genuke"* esanez beti, oso zaila da zure lankideak konbentzitzea. Behin ikusten dutenean egiten ari zarena, agian orduan gustatuko zaie ideia.

Kantuz Blai jaialdian zer abestu aukeran ematen al zaie haurrei?

Bai. Kantuz Blairako 130 abesti inguru daude zintetan grabatuta eta presatuta, eta orain CDetan biltzen ari naiz. Material horretatik aukeratzen dute zein abestu. Zinta bakoitzak alde bateko abestia dauka eta bestetik euskarri musikala. Abesterakoan garrantzia handia du musikaren laguntzak. Kantuz Blain nahi duenak *"a cappella"* ere abes dezake, musikaren inolako lagun-



tzarik gabe. Baina jaialdiak bere maila edukitzea garrantzitsua da. Eta oso normala da *"a cappella"* kantatzera irten, eta tonu batean hasi eta bi beherago bukatzea. Bestetik, entzuten dagoena musikarik gabe nekatu ere egiten da, eta kontuan izan 8-9 urteko haurrak ere ordu eta erdiz egoten direla eserita.

Lan handia egin duzu 130 abesti, euskarri musikal eta guzti, zintetan eta CDetan biltzen. Halako materialik ez al dago eskura?

Ahalegin guztiak egin ditut, ahal nuen toki guztietatik, euskarri musikala lortzeko. Baina Euskal Herrian ez dago. Abesti zaharrekin Oskorriren Pub libeltaria erabiltzen dugu (zazpi disko atera dituzte); hortik aukeraketa bat egin eta abesti bakoitza bi aldiz grabatzen dut, batean hitzarekin, eta jarraian euskarri musikala huts-hutsean.

Abesti berrietan, aldiz, euskarri musikala lortzeko modurik ez dago. Karakerako bideo batetik jaitsi nuen behin musika; Interneten ere badago zerebait, baina besterik ez dago. Euskal Telebistan badituzte abesti berriagoak, haurrei atsegin zaizkienak, baina deitzen duzu eta badirudi kontratu bat dutela ez dakit norekin eta ezin dela ezer atera handik.

Iparraldean Agorrila diskoetxeak atera zuen *"Haurrak"* konpaktua oso

politua da. 14 abesti biltzen ditu euskarri musikarekin. Bide hori da bultzatu nahi nukeena, euskararen inguruko abestiekin, zehazki. *"Jalgi hadi plazara"*, *"Guk euskaraz"* eta halako abestiekin konpaktu bat egin behar genuke, azkar baino lehen. Imanol Urbietari ere esana diot, bere abestiak euskarri musikarekin grabatu beharko genituzkeela.

Zer garrantzia du euskarri musikarekin abesteak?

Euskarri musikala soilik jarrita, hitzik gabe, haurrak ahalegina egin behar du melodia sartzeko. Lanketa hori berdin egin daiteke *"a cappella"* ere, baina musikak beti ere asko laguntzen du. Konturatuta nago Haur Hezkuntzan *"a cappella"* ahotsez asko abesten duten haurrek, Lehen Hezkuntzan lehen egunetik abesten dutela. Zintan abestia hitzarekin jarrita abesten dutenei, berriz, tonua hartzea kosta egiten zaie, eta abestu heinean ere tonua galdu egiten dute. Hori egiaztatuta dago.

Karaokea da modan dagoena...

Niri Karaokea ez zait batere gustatzen; gureari *"Kantaokoa"* deitzen diot. Karaokean badirudi pantailan eredu ikusi egin behar duzula eta letra irakurri. *"Kantaokoa"*, berriz, zerorrek eka-



...ri be-
har duzu hitza
burura. Hemen haurrek ikasi dituzte sei
eta zortzi bertso buruz, eurentzat erabat
berriak zirenak, eta gainera ezagutzen
ez zuten euskara batean (abestietakoa
bertsolarien hizkera baita, gelan erabil-
tzen ez duten hizkera). Horrek beti uz-
ten du zerbait.

Buruan hartutako abesti batek zer uzten du norberarengan?

Asko irakurtzen duen pertsona bati
gero antzeman egiten zaiola esaten da,
irakurtzen duen horretatik zerbait gel-
ditzen zaiolako. Abesti zaharrak eta as-
ko abesten dituen bati ere, ez ote zaio
geldituko zerbait idazteko edo hitz egi-
terako orduan? Nik baietz uste dut.
Abestietan bertsoa dago, eta bertsoa ez
da prosa. Bertsoan, neurria oso muga-
tua denez, bi hitzekin perpausa handi
bat egiten da. Bi hitz horiek esanahi
handikoak dira beti, pisu handikoak,
aberatsak. Bi hitz horiek ikasten baditu-
zu, zure euskara aberastu egiten duzu.

Bestela ere, kantatzeak berez dau-
ka garrantzia, haurrekin lantzeko. Mu-
sikan egin daitekeen gauzarik abera-
tsena kantatzea da, musikaren aldetik
begiratuta ere kantuan gauza asko jo-
rratzen dituzu. Eta hizkuntza aldetik
begiratuz gero, zer esanik ez. Bai nor-
beraren euskara aberasteko, eta baita
euskal giroa lantzeko ere.

Euskararen inguruko abestiak lantzeko CD bat atera behar litzate- keela esana duzu. Zer garrantzia du- te euskararen inguruko abestiek?

Gaur egun haurrek euskara ikasi,
ikasten du. Erabilera da huts egiten
duena. Eta euskara erabiltzeko, hau-
rrak herria maite behar du. Guk ere gaz-

tetan euskararekiko lotura *"Ikusi men-
dizaleak"* abestuz hartu genuen, edo
"Hara nun diran" eta halako kantue-
kin. Gure aurrekoek ere Euskal Herriari
abesten zioten, eta euskarari. Gaurko
haurrek ere abestu egin behar dute, he-
rria maitatzeko era bat da. Eta herria mai-
tatu gutxienez egin behar dute, euskaraz
egin ahal izateko. Oso zaila da herria
maitatzen ez duen batek euskararekiko
zaletasuna izatea (politikoren batzuk
izango dira halakoak, baina beste inte-
res batzuekin jotzen dute euskarara).

Bederatzi aldiz egin duzue Kan- tuz Blai. Zerk asebetetzen zaitu gehien?

Talde osoak, gela osoak, nola abes-
ten duen ikusteak. Talde txiki batek on-
do abestea ez da hain zaila. Nik badakit
nor diren afinatzen dakitenak, ahotsa
begiratzen baitiet banaka-banaka. 7 ur-
teko haurrek noduluekin harrapatu
izan ditudalako egiten dut hori, etxean
garaiz jakin dezaten. Ahotsaren arabe-
ra, erraza nuke taldeak osatzea. Baina
helburua abestea da. Eta horrek asebe-
tetzen nau gehien: ikusteak gela oso
batek zer afinazio maila duen, nola
abesten duen eta abestiak nola ikasten
dituzten denek.

Beste erronka berririk ba al duzu?

Badut ideia bat, eta irrikaz nago
gauzatzeko: kantu maratoi bat egingo
nuke, alegia, isilunerik ez duen ordu

beteko emanaldia. 5 eta 6 urtekoekin
hasi eta 3. ziklora arte, mailaz maila
txandakatuz izango litzateke maratokia,
baina, tartean isilunerik egon gabe, be-
ti soinua ahoan dugula. Horretara kon-
prometitzen naiz.

Ikastetxeetan kantua lantzen da, baina eskola barrurako geldi- tzen den zerbait da. Nola eman ja- rraipena, nola atera eskolatik?

Orain 5 urte Imanol Urbietari ome-
naldia egin genion. 3.000 haur elkartu
genituen Mendizorroztan, eta Urbie-
taren abestiek ordubeteko saioa egin
genuen. Hainbat eskolaren artean osa-
tu genuen emanaldia. Hori urtero egi-
tea litzateke aberasgarria: ikastola bar-
ruan lantzen duzuna gero beste ikaste-
txeekin batera jartzen baituzu agerto-
kian. Jakina, horrek antolakuntza eta
dedikazio handia eskatzen du.

Euskal Herriko Kantu Txapelke-
tan ere badago halako zerbait egiteko
aukera. Baina, berez, txapelketa hor-
retara joaten direnak maila batetik
gorakoak dira denak: musikarien se-
me-alabak, musika ikasten ari dire-
nak, ikastetxetik hautatutako talde-
txoak... Beharbada ez da hain garran-
tzitsua maila gorenari begira soilik
egitea gauzak, eta aberasgarriagoa da
jaialdi bat osatzea parte hartze zabala-
goarekin, urtean zehar egindako lana
besteekin elkartuz. Hori lor daitekeen
zerbait da. •



kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Zer diote etorkinek¹?



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

Datuek adierazten dutenez (Eusko Jaurlaritza, 2002), azken urteotan, EAEan, ikasle etorkinen matrikulazio tasa % 40 ari da urtero igotzen. 1995-1996 ikasturtean 1.942 ikasle etorkin zuden bitartean, 2001-2002 ikasturtean 5.415 zuden. Gaur egun, EAEko² ikasleria guztiaren % 1,8 dira .

Bilakaera hori dela eta, nahiz eta oraindik kopurua handia ez izan, urte tik urtera bikoizten doanez, euskal irakaskuntzaren hainbat sektorek eta gizar-teko eragileek hainbat jardunaldi,

hitzaldi, mintegi... martxan jarri berri dituzte egoera honi ahalik eta ongien erantzun gogoz.

Baina, jarri ote gara inoiz pentsatzen proiektu horietan guraso etorkinen hitza, iritzia... kontuan hartzen ote den? Hau da, guraso horiek, beraien haurren integrazio bai linguistikoari, bai kulturalari begira, zein hutsune ikusten dituzte gure ikastetxeetan? Zein da egoera horri buruz beraien duten iritzia? Zer aldarrikatzen dute? Zein dira beraien proposamenak egoera honi aurre egiteko?... Izan ere, argi dago, kezka honi erantzun egokia bilatu nahi badiogu, etorkinen beraien iritzia, laguntza eta elkarlana beharrezko ditugula.

Galdera horietako batzuei, behinik behin, erantzun gogoz, **Garaipen** taldeko (Emakume etorkinen elkarte) ordezkari den Victoria Mendozarekin bildu ginen.

Elkarrizketa aurrera zihoan ahala, hainbat puntu atera ziren mahai gainera. Guk, hobe beharrez, solasaldi hari hari orden apur bat jartze aldera, elkarrizketa hartan aipatu ziren puntuak bi taldetan banatu ditugu. Alde batetik, beraien iritzi, haur etorkinen integrazioari begira (bai linguistikoari, bai kulturalari), EAEan aurkitzen dituzten hu-

tsuneak; eta bestetik, helburu hori lortzeko, beraien ustez, denon artean, elkarlanean, landu beharko genituzkeen arloak.

Lehen atalari helduz, Victoria Mendozak ondorengo zazpi puntuak azpimarratzen ditu:

1. EAEko ikastetxeetan ez dago haur etorkinei zuzenduriko plan espezifikorik, ez integrazio kulturalari, ez eta linguistikoari dagokionez. Eskolaz kanpo ere, haur etorkinen integrazio linguistikoari begira dauden hezkuntza programak (euskara ikasteari begira, alegia), euskara hainbat urtetan ikasteko dira.

2. Eskoletako ahalegin diseinua haur etorkinei begira herren dago. Euskararen alorra, esaterako, euskara ikasteko zailtasuna duten haurrentzat baino ez dagoela pentsatua azpimarratzen du. Hau da, euskara sekula ikasi eta entzun ez duten haurrentzat-eta are gutxiago gaztelania ere inoiz ikasi eta entzun ez duten haur etorkinentzat-, ikastetxeetan ez dago ezer prestaturik. Errealitate horrek eragin zuzena du haurraren curriculumeko beste ikasgai guztietan, hizkuntz arazoak direla eta ezin baitituzte beste ikasgaiak jarraitu.

Haur Hezkuntzan matrikulatzen diren haur etorkinek, zeinahi ama hiz-

¹ Artikulu hau, argitaratu aurretik, GARAI PEN taldekoek (Emakume etorkinen elkarte) irakurria eta onartua izan da.

² Ikasle horien ia erdia, %48, iberoamerikarra da; %23 afrikarra; %21 europarra; %6 asiarra; eta %3, beste lurralde batzuetakoak

kuntza izanik ere, euskara ikasteko arazorik ez dute izaten. Baina errealitatea bestelakoa da Lehen Hezkuntzan eta, bereziki, Bigarren Hezkuntzan matrikulatzen diren haur etorkinentzat. Hori dela eta, kasu horietarako, ikastetxeek arreta pertsonalizuagoa eskaintzen duten errefortzu diseinuak sortu behar ko lituzketela uste dute, kontuan izanda ez dela gauza bera haur etorkin horien ama hizkuntza gaztelania izatea –haur iberoamerikarren kasua– edota irakasleek ezagutzen ez duten hizkuntza bat izatea.

3. Euskal gizarteak beraien kulturak eta ohiturak ezagutzeko egiten dituzten ekitaldi guztiak pertsona orori irekiak daude: euskaldunei, etorkinei zein etorkinekiko interesa erakusten duten guztiei. Aldiz, sarri askotan, euskal kulturari buruzko ekimen eta ikuskizunak etorkinentzat ez daudela zabalik edota prestaturik iruditzen zaie, eta horrek, bereziki beraien haurren integrazio kulturalari begira, oztopo bat suposatzen du.

4. Etorkinek Euskadira iritsi arte ez dakite EAEan bi hizkuntza direla ofizialak: euskara eta gaztelania. Uste dute gaztelaniaz baino ez dela hitz egiten herrialde honetan. Bertora heltzen direnean ere inork ez die gai horren inguruan ezer aipatzen. Harremanetan jartzen diren lehen elkarteek errealitate horren berri eman beharrean eta haurrak zein eredutan matrikulatu erabaki-

tzea beraien esku utzi beharrean, seme-alabak A ereduan matrikulatzera bideratzen dituzte, bereziki hirietan. Ostean, jabetzen dira, Euskadin bi hizkuntza direla ofizialak, eta argi dute beraien haurrak herrialde honetan guztiz integratzeko bi hizkuntzok ongi ikastea ezinbestekoa dela. Guraso etorkinek, EAEra heltzen direnean, hemengo errealitate linguistikoaren inguruko informazio eza dutela salatzen dute, horrek, sarriegi, beraien haurren integrazio kultural eta linguistikoan eragin zuzena duelarik.

5. Etorkinei ez zaie azaltzen, ez bertora heltzean, ez ostean, EAEan euskara jakiteak duen garrantziaz, bai integrazioari begira, bai eta lan munduari begira; hau da, beraien haurrak, B ereduan edota bereziki D ereduan matrikulaturik izateak, gerora begira haur horientzat duen garrantziaz.

6. Etorkinek hemengo hezkuntza sistemaz ez dakite ezer, ez bertokoei ere ez etorkinen lurraldeetako hezkuntza sistemez. Bertora heltzen direnean ere, eta beraien haurrak Euskadiko ikastetxeetan matrikulatu, inork ez die ezer azaltzen. Bertoko ikastetxeek ere ez die galdetzen nolakoa izan den ordura arte beraien haurrak matrikulaturik egon diren hezkuntza sistema. Arrazoi hori dela eta, jauzi, eztabaida, arazo, denbora galtze... nabarmenak sortzen dira, hitz eginez gero, laster asko konponduko liratekeenak.

7. Guraso/haur etorkinen eta ikastetxearen arteko lehen harremanetarako behintzat, hizkuntza arazoak leuntzeko, ikastetxeetan bitartekari lanak egiten ari diren pertsonak egon behar ko luketela uste dute. Izan ere, hitz egin eta elkar ulertuz gero, konpondu ahalko liratekeen hainbat arazo sortzen dira bi aldean artean.

Guraso etorkinen proposamenak

Horiek izan dira **Garaipen** taldeko kideen ustez haur etorkinen integrazioari begira gure ikastetxeetan dauden hutsuneak. Baina zein dira emakume etorkinen elkarte honen iritziz euskal-

dunen eta etorkinen artean landu behar ko genituzkeen arloak, beraien haurren integrazio kultural eta linguistiko egokia bideratzeko? Hona hemen Victoria Mendozak aipaturikoa:

1. Etorkinen jatorrizko hezkuntza sistema gogoan hartuz eta, guraso etorkinen iritziz eta aholkuak alde batera utzi gabe, denon artean haur etorkinei euskara ahalik eta denbora gutxienean irakatsi eta kulturalki Euskadin integratzeko proiektu pertsonalizuatuak sortu behar ko lirateke, haurren adina, ama hizkuntza... kontuan izanda.

2. Ikasle etorkinei euskara eta euskal kultura transmititzeko bitarteko egoki bat topatu behar ko litzateke, gai honekin sentsibilizatua dagoena eta ikuspegi zabala duena. Lan horretarako, beraien ustez, pertsonarik egokiena EAEan guztiz integratuta (bai linguistikoki, bai kulturalki) dagoen etorkin bat izango litzateke.

Talde honetako guraso etorkinek, behinik behin, beraien haurrek euskara ikastea eta euskal gizartean bai kulturalki bai linguistikoki ongi integratzea nahi dute, baina horretarako, euskaldunen eta etorkinen arteko elkarlana ezinbestekoa ikusten dute.





3. Etorkinak EAEra heltzen direnean, hemengo errealitate linguistikoa eta hezkuntza sistema azaltzeko bitartekari bat bilatu beharko litzateke, etorkinak Euskadiko errealitate linguistikoa eta kulturalaz jabetzen direnean argi baitute beraien haurrek euskara ikasi behar dutela. Bitartekari hori Euskal Herrian bai kulturalki bai linguistikoki guztiz integraturik dagoen guraso etorkin bat izatea komeniko litzateke. Izan ere, etorkin etorri berriengandik hurbilago egongo litzateke, sentsibilizatua go legoke, eta etorkinentzat beraienezat ere etorkin horren esperientziak eta aholkuek pisu handiagoa izango lukete bertoko euskaldun batenak baino –etorkin hori, heldu zenean, beraien egoera berean baitzegoen-.

4. Guraso etorkinei hitzaldiak eman beharko litzazkieke beraien haurrek behintzat euskara ikas dezaten. Hau da, EAEan euskara jakiteak dituen onuren berri eman behar zaie guraso etorkinei: lanari begira, integrazio sozialari begira, EAEko errealitate kulturala, linguistikoa, politikoa ulertzeko... Hala, beraien seme-alabak euskara ikastera animatuko litzazkieke eta, haur horien motibazioa gehituz gero, uste dute haur etorkinek azkarrago ikasiko luketela gure hizkuntza. Izan ere, herri euskaldunetan, haur etorkinekin ez dago motibazioa landu beharrik euskara ikasteko, baina gune erdaldunetan kontrako errealitatea dugu. Kasu

hauetan, haurrek ez dute ulertzen zergatik ikasi behar duten euskara baldin eta gaztelania jakitea nahikoa bada eguneroko bizitza normaltasun osoz burutzeko. Haur horientzat euskara beraien ikasketa prozesuan oztupo bat baino ez da.

5. Ikastetxeetan didaktika kulturarantz landu beharko litzateke. Ez da nahikoa, ikastetxe batzuetan egiten den bezala, “kultur aniztasun eguna” ospatu eta gero ikasturtean zehar gai horren inguruko ezer ez lantzea, sarri askotan, egun hori folklorismo hutsean erori eta kontrako efektua lortzen baitu. Kulturarantz egunero eta zeinahi ikasgaietan landu beharko litzateke. Horretarako, guraso etorkinen eta bertokoen arteko elkarlana bultzatu beharko litzateke.

6. Etorkin askok euskara ikasi nahiko lukete, baina diru arazoak direla eta, atzera egiten dute. Beraiek jabetuta daude euskara jakiteak herrialde honetan duen garrantziaz, beraietako asko eta asko Euskal Herriko egoera linguistikoa antzekoa duten herrialdeetatik baitatoz, eta beraz, gure egoera linguistikoaekin sentsibilizatuta daude. Hala ere, arazoa diruan datza. Beraz, talde honetako partaideen ustez, euskara ikasi nahi duten etorkinek hori posible izan dezaten, beka sistema bat sortu beharko litzateke. Gainera, etorkin batzuk euskara irakasteko ongi prestatuz gero, ostean, etorkin horiek ondo-

rengo etorkinen euskara irakasle egokienak izan daitezke. (“Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntza ere” artikuluan –*Hik Hasi*, 81-azaltzen ziren ideien ildoko zerbaiten beharra ikusten dute **Garaipen** elkarte-koek)

7. Hezkuntza sistemak guraso etorkinekin harreman zuzenagoak izan beharko litzazkieke, beraien haurrei begira sortzen diren proiektuetan beraien iritzi, uste eta nahiak kontuan izan daitezken.

8. Sarri asko, haur etorkinen kultura, erlijio edota ohiturak direla eta, ikastetxeetan hainbat gatazka egoten dira bi aldeen artean. Guraso etorkinen eta ikastetxeko arduradunen artean hitz egingo balitz, hori ez litzateke gertatuko. Hau da, bi aldeen arteko komunikazio hobea egon beharko luke.

9. Hizkuntza eta kulturarantz landu haur guztiekin lantzeko eta haur etorkinek euskara ikasi eta erabiltzeko, eskolaz kanpoko ekintzak sortu beharko lirateke: antzerkia, eskulanak, jolasak... Aktibitate horietan guraso etorkinek eta bertokoek parte hartu beharko lukete.

Horiek izan dira GARAIPEN taldeko ordezkariarekin izan nuen elkarrizketan mahai gainera atera ziren puntuak. Nik uste dut, kezka honi erantzun egoki bat eman nahi badiogu, hemen agertu diren proposamenak kontuan behintzat izan beharko genituzkeela, afektatu nagusiak, beraiek baitira. Bestalde, argi geratu da, talde honetako guraso etorkinek behinik behin, beraien haurrek euskara ikastea eta euskal gizartean bai kulturalki, bai linguistikoki ongi integratzea nahi dutela, baina horretarako, euskaldunen eta etorkinen arteko elkarlana ezinbestekoa ikusten dute. Orain, bi aldeen arteko elkarrizketa serioari hasiera ematea baino ez da falta. •

*OHARRA: **Garaipen** elkarteari edozein zalantza edo galdera egiteko, edonork ondorengo bi e-mailletako batura idatz dezaket:

mavicms@yahoo.es
garaipenpv@yahoo.es

Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen
HITZALDIAK

\\ Donostiako berritzegunea:

Moduluak:

- Gure ikastetxean interkulturalitatea
- Etorकिन integrazioa helduen hezkuntza iraunkorrean

Mintegiak:

- Interkulturalitatea ikastetxean
- Etorकिनak eta helduen ikastetxeak

Informazioa:

www.donosgune.net

\\ Hezkuntza sistemiei buruzko elkartrukea: Euskal Herria eta jatorrizko herriak

Non: GASTEIZ

Noiz: 2003ko azaroaren 29an

Informazioa:

Joxemi Zumalabe Fundazioa

joxemi@joxemi.org

Tel.: 943 275 561

\\ El fórum de les cultures. Barcelona 2004

Non: BARTZELONA

Informazioa:

www.barcelona2004.org/cat

\\ International Conference on Language, Education & Diversity

Non: HAMILTON (Zelanda Berria)

Noiz: 2003ko azaroaren 26tik 29ra

Informazioa:

<http://www.led2003.ac.nz>

\\ EXPOLINGUA Berlin. More linguistic diversity in Europe

Non: BERLIN

Noiz: 2003ko azaroaren 21etik 23ra

Informazioa:

<http://www.expolingua.com/english/index.en.htm>

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

**** Historiako irakaslea naiz eta haur etorkinen kezkearekin guztiz kontzientziatua nago. Nire ikasgaiaren kultura eta hizkuntza aniztasuna lantzea gustatuko litzaidake. Baina nola? Ba al dago material didaktikorik Historiako ikasgaiaren kultur eta hizkuntza aniztasuna lantzeko?**

Bestetik, eleanitz proiektuarekin loturik, gustatuko litzaidake norbaitek azaltzea, proiektu honen arduradunek nola pentsatzen duten haur etorkinei hiru hizkuntza (euskara, gaztelania eta ingelesa) ia aldi berean irakastea, baldin eta bertokoei ezin irakatsiz baldin bagaude (berezikiki gune erdaldunetan). Gainera, ikusirik gizartean, oro har, indarrean dauden hizkuntzak gaztelania eta ingelesa direla, ez ote da gune erdaldunetan (haur etorkin gehienak hiri edo gune hauetan biltzen dira) euskara lehen baino egoera kaxkarragoan geratuko?

ALEX: erantzuna aldizkarira edota atal honen arduradunari bidali, mesedez. Eskerrik asko.

**** Euskal Herriko ikastetxe batzuk beraien kabuz haur etorkinei euskara irakasteko material didaktikoa sortzen ari dira edota jada unitate didaktiko batzuk sortuak dituzte. Ikastetxe horietako asko material horren trukaketak egiteko prest leudeke. Zeinahi irakurlek, ikastetxek, elkartek... material didaktikoaren trukaketan parte hartu nahiko balu, jarri nirekin harremanetan: itziaramayo@msn.com**

Goiko galderari erantzuna, proposamena, aholkua, laguntza, iradokizuna... eman nahi badiozu, hemen duzu aukera. Bi modutara egin dezakezu: galdera egiten duenarekin zuzenean harremanetan jarritz edo aldizkarira idatziz (aldizkaria@hikhasi.com).

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak badituzu, idatziezaguzu bi helbide hauek batera: itziaramayo@msn.com edo aldizkaria@hikhasi.com Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak

azaroa

Lan eskaintza

Aixe-aisialdia taldeak eskolaz kanpoko ekintzetan begirale modura aritzeko begiraleak behar ditu.

Talde hau aisialdiko ekintzen kudeaketaz arduratzen da, zentroei, guraso elkarteei eta begiraleei euren laguntza eskainiz.

Eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilpena bultzatzea eta kalitatea bermatzea helburu duen proiektua jarri dute martxan, bai baitakite eskolaz kanpoko ekintzak tresna garrantzitsua direla hizkuntzaren erregistro ez formalak transmititzeko.

Jardun horretarako lan poltsa osatu nahi du Aixe-aisialdia taldeak eta horregatik, begirale bezala lan egiteko interesa duenari edota lan hori betetzeko gai den edonori, lan eskaintza egiten dio.

Informazio gehiagorako:

Aixe aisialdia

Deustuko ikastola

Iruña 2-B

48014 Deustua-Bilbo

Tel.:699 887 846

E-posta: zamiba@euskalnet.net

Kontaktua: Ikerne Zamakola

Gurasoak ere kultura, hezkuntza eta elkarbizitzari buruz hausnartzen ari dira



Baikara Gipuzkoako Ikasleen Guraso Elkarteak antolatuta **"Kulturekin elkarbizitzari parte hartzen duzue!!"** I. topaketa burutu zen Donostian. Goiz bateko iraupena izan zuen saioan Felix Etxeberria EHUko irakasleak eskaini zuen lehen hitzaldia: *"Hezkuntza eta immigrazioa"*. Jarraian Trintxerpeko

Karmengo Ama ikastetxeko esperientzia ezagutarazi zuten bertakoek. Ondoren, Madrilgo AMANI kolektiboko Tinus Wijnakker-ek *"Esku-hartze proposamen bat"* hitzaldia eskaini zuen. Mahai inguru batekin eman zitzaion amaiera topaketari, eta aurrerantzean ere gaia jorratzen jarraituko dute.

Maisu-maistren egoera eta formazioa aztergai izan dira

"Erreformatik eta maisu-maistren formazioa" izenburupean antolatu ziren jardunaldiek hezkuntza arloko hainbat irakasle, guraso, ikasle eta interesatu bildu zituzten Donostiako Irakasle Eskolan urriaren 23 eta 24an.

Lehen egunean, euskal eskolaren azken 10 urteotako ibilbidea izan zuen hizpide Luis Otanok. Ondorengo mahai inguruan maisu-maistrek nola ikusten dituzten azaldu zuten Pilar Etxaniz irakasleak, Ana Eizagirre gurasoak eta Nekane Agirre Hezkuntza sailburuorde ohiak.

Bigarren egunean maisu-maistren premia formatiboak izan ziren aztergai eta horretaz jardun ziren Sarean-eko kide Andoni Lizeaga, Donostiako Berri-tzeguneko zuzendari Marisol Uria eta



Donostiako Irakasle Eskolako irakasle Maritxu Aierza. Ostean, Alfonso Unzeta Hezkuntza sailburuorde izanak hitzaldi bat eman zuen: *"Hezkuntza eszenatokiak, irakasleen eskakizunak eta formazioa: hausnarketarako zenbait ohar"*.

Jardunaldiok Irakasle Eskolako ikasleei eta irakasleei errealitate profesionale-ra hurbiltzeko aukera eman diete.

Hezkuntza ikerlan berriak denon eskura daude

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza ikerlanak egiteko baimenak ematen ditu urtero, eta ondorioz, hainbat irakasle jarduten da gai bat edo beste ikertzen. 2002-2003 ikasturteko hezkuntza ikerlanen aurkezpena egin zen Donostian eta interesa duen ororen eskuetan jarri dira bai ikerlanak eta baita egileak ere.

Hona hemen, bada, landu diren gaiak, egileak eta kontaktuak:

Ikasgai guztietarako:

- Adierazpen plastikoa Lehen Hezkuntzan	Antigua Bedialauneta	antiguabedialauneta@irakasle.net
- Irratia eta prentsa: ahozotasuna curriculumean, HH eta LH	Arantzazu Cruz	acruz@irakasle.net
- Balioek irakaskuntzan duten garrantzia, DBH	M ^a Jesus Etxabe	garaietxabe@euskalnet.net
- IKTen erabilerarako gida. IKTak eskolan... eta orain, zer? HH eta LH	Bittor Txakartegi	bittortxakartegi@irakasle.net
- Interneta euskarari lekua zabalduz, LH eta DBH	Jose M ^a Barrena	

Euskara:

- Ahozko komunikazioa lantzeko baliabide didaktikoak, DBH 1. zikloa	M ^a Angeles Aranburu	
- Idazle klasikoak komentatuz, Batxilergoa	Miguel Jose Arregi	labaki@euskalnet.net
- Ahozotasuna irakaskuntzan, DBH 1. zikloa	Sara Barandiaran	
- Literatura eta Lenguaren irakaskuntza Interneta erabiliz, DBH eta Batx.	M ^a Arantzazu Fernandez	kapearantza@jazzfree.com
- D ereduko ikasleentzako idazketa tailerra egiteko materialak, DBH 3-4.	M ^a Arantzazu Saban	saban@euskalnet.net

Gaztelania:

- Proyecto aplicado a la enseñanza del español a inmigrantes, DBH 3-4. Marta Ruiz de Garibay		
--	--	--

Ingelesa:

- Ingeles teknikoko unitate didaktikoak hezkuntza ziklo hauetarako: mekanizadoa, ingurumen kimika eta telekomunikaziorako eta informatikarako sistemak, Lanbide Heziketa	Mari Jose Hernandez	meriyou@irakasle.net
- English through computers, DBH 3 eta 4.	Santiago Ugarte	sugarte@irakasle.net

Hizkuntza:

- Hizkuntza transferentziak euskaratik gaztelaniara Sekuentzia Didaktikoaren markoan, LH	Lourdes Etxeberria	lurretxeberria@euskalnet.net
--	--------------------	------------------------------

Giza Zientziak:

- Artera hurbiltzen Giza Zientzietako beste ikasgaiekin, DBH eta DBHO	Ander Alvarado	aalvarado@irakasle.net
---	----------------	------------------------

Ingurumena:

- Paperak aldatu, DBH 1.	Iñaki Ogando	rescaray@euskaltel.net
- Lea-Artibai eskualdea ezagutuz	Eneko Etxebarrieta	enekoetxe@euskalnet.net

Matematika:

- DBHn matematika arloan teknologia berrien aplikazio didaktiko batzuei buruzko ikerketa aniztasunaren trateran eragina duena, DBH	Luis Mariano De luz de	koldokoldo@euskalnet.net
- Matematika eta Internet, DBH 4.	Jesus Mari Gorroño	jesusgo@irakasle.net
- Latex testu prozesatzailea, DBH	Fernando Garatea	fgaratea@irakasle.net

Fisika eta Kimika:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia Fisikan eta Kimikan, Batxilergoa,	Mercedes Rodriguez	mrepelde@irakasle.net
---	--------------------	-----------------------

Geografia eta Historia:

- Hezkuntza kulturantzako material kurrikularrak, DBH	Jesus Valencia	
---	----------------	--

Artea, plastika:

- Arte garaikidea Euskal Herrian	Miguel Garcia	velillam@hotmail.com
- Adierazpen dramatikoak, HH eta LH	Joseba Ramirez	irritziprodukzioak@hotmail.com

Helduen Hezkuntza:

- Material de lecto-escritura para adultos	Ezequiela Albarran	ezequiela@irakasle.net
- Hacia una vida saludable	Rosa Maria Arrabal	rossma@irakasle.net
- Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak Helduen Hezkuntzako ikasleentzat	Mari Jose Isla	islablanco@irakasle.net

Diziplina, elkarbizitza, balioak:

- Gatatzaren traterak eskolan elkarkidetzaren harmonikoa eraikitzeko, HH, LH eta DBH	Ana Cristina Vega	iratimaita@euskalnet.net
--	-------------------	--------------------------

Etorkinak:

- Haur etorkinentzat ikasmaterialak prestatzen, LH	Inmaculada Ortega	imaortega@irakasle.net
--	-------------------	------------------------

Argitalpenak



Euskaldunen kolore-unibertsoa

Txema Preziado eta Alfontso Mtz. Lizarduikoa

GAIK

Kolorea da aztergai liburu honetan eta ikuspegi anitzetatik begiratzen zaio: fenomeno fisiko, kimiko eta biologiko bezala, kolorearen pertzepzioa eta subjektuarengan duen eragina, kultura bakoitzean kolorea ulertzeko daude moduak eta Euskal Herrian koloreek duten esanahia •



Brummm!

Anjel Lertxundi

ELKAR

Lehen irakurleentzako liburu honen protagonista Niko da, eta gai nagusia irudimena. Bera ez da inoiz aspertzen, pospolo kaxa gorri bat auto gorri bilakatuz irudimenari atea irekitzen baitio. Gurasoak eta pertsona helduak, ordea, oso mugatuak dira, oso baldar ibiltzen dira irudimenaren munduan, dena esplikatu behar izaten zaie eta askotan alferrik izaten da ahalgina. Zer egin jende horrekin? •



Ikerkuntza psikologian

Nekane Balluerka eta

Xabier Isasi

UEU


Liburu honen helburua Gizarte eta Osasun Zientzien eremuan edozein ikerketamodusistematikoa egin ahal izateko irizpideak eta tresnak eskaintzea da. Horretarako, ikerkuntza egin nahi duen ikasle edo profesionalari bere ikerketan emaitza fidagarri eta baliagarriak lortu ahal izateko kontuan hartu behar dituen alderdi nagusienak azaltzen zaizkio •



Bolo & Bill

JEAN FRANÇOIS SAURÉ


Euskarazko komiki liburuak argitaratzen dituen argitaratzaile honen azken lana dugu hau. Bolo mutikoaren eta Bill zakurraren abenturaz jositako liburua da. Aurreko lanetan bezala, euskara aldetik kontu handiz landu da eta ilustrazioei ere garrantzi handia eman zaie. Emaita liburu erakargarri bezain bizi hau izan da •



Haur hezkuntzarako ikastetxe curriculum proiektuak (0-3)

EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza Sailak EAEko udalei hezkuntza proiektuak aurkezteko egindako deialdietan parte hartutakoen artean Irungo, Oiartzungo eta Zarauzko haur eskolak egon ziren, eta orain beraien curriculum proiektuak argitaratu dira. Praktikan oinarritutakoak dira eta hezkuntza sistemak dituen erronka eta eskakizun askori erantzun interesgarria emango diotenak •



Literatura eta harrikoa

Inma Errea

PAMIELA

Literatura femeninoari buruzko eztabaidak bazkalosteko ohiko gai dira irratietan. Idazleei beti egiten zaizkien galderak dira, esaterako, literatura femeninoak existitzen duen, zertan ezberdintzen den edota irakurlearen begitan eta sentsibilitatean ote dagoen gakoa. Ohiko galderentzat nork bere erantzunak aurki ditzan, gogoetarako bide ematen digu •

Argentina eta Euskal Herria elkarlanean

Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua Daniel Filmus Argentinako Hezkuntza ministroarekin bildu zen Buenos Airesen urriaren 10ean. Biak oso gustura agertu ziren euren arteko elkarlanarekin. Iztueta-ren hitzetan *herrialdeen artean kolaboratzeko modurik onena ezagutza, prestakuntza eta esperientzia trukatzea da*.

Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketa eraldatzen, eguneratzen eta estrategia berriak garatzen lagunduko dio Argentinari; eta honek biozientzian eta teknologian ekarpen interesgarria egin diezaguke. Elkarlan horrez gain, Argentinako hezkuntzaren egoeraren berri eman dio Filmusek **Hik Hasi**ri.

Zertan lagun diezaioke Argentinak Euskal Herriari hezkuntza arloan?

Garapen bidean dauden herrialdeetatik, Argentina zientzietan bost Nobelsarijaso dituen herrialde bakarra da. Guk ikerketa arloan ekarpenak egin diezazkiokegu Euskal Herriari. Truke zientifikoak egin ditzakegu, eta baita ikerketa institutu eta arlo komunak sortu ere.

Gobernu aldaketarekin jendea itxaropentsu dago. Zeresango zenieke argentinarrei?

Aldatzen ari garen herrialdea gara. Krisi ekonomiko latza pasa dugu: BPG %20 erori zen lau urtetan soilik, eta hori gerra jasan duen herrialde batean soilik gertatzen da. Gure krisiak, ordea, ez zuen zerikusirik izan ez hondamendi naturalekin, ez gerrekin, baizik eta herrialdea gidatu zen moduarekin, politika ekonomikoarekin. Argentinak esportatzen dituen produktuen %80 lehengaiak dira, eta %20 soilik da argentinarek manipulatutako edo produzitutakoa. Eta hori aldatu egin behar da. Ez dugu eskulanaren edo lehengaien gehiegizko hustiapenean oinarritutako eredu nahi, baizik eta hezkuntzan, zientzian eta ezagutzan oinarritutakoa.



Orain dela bi urteko krisiaren ondorioz pobrezia hedatu egin da Argentinan eta horrek hezkuntzan ere eragin du. Nola egin aurre horri?

Hezkuntzaren krisia hamarkadetako kontua da, ez da azken bi urteetako soilik. Noski, azken bi urteetako egoerak pobrezia areagotu egin du, baina krisia aurretik dator.

Hori onartuta daukagu eta gogotik ari gara lanean prozesu horri buelta emateko. Ez da erraza izango, etengabeko ahalegina behar da, inbertsioa hobetzea, bere erabilera ere hobetzea...

Ikasleen ezagutza maila neurtzen duten ikerketa batzuen arabera, Argentinan da ikasleen artean desberdintasun handiena duen herrialdea; hau da, gehien dakiten ikasleek herri garatuetako ikasleen maila daukate, eta gutxien dakitenek herri ez garatueta-koek adina dakite. Nola gutxitu daiteke alde hori?

Bai, probintzien artean desberdintasun handia dago. Zenbait probintziatako eskola publikoan ia gehienak behar-tsua dira, gaizki elikatuta daude, familian arazoak dituzte, indarkeria arazoak dituzte... Horri aurre egiteko politika konpentsatzaileak erabili behar dira. Hezkuntza probintzietako instituzioen

ardurapean dago, baina guk nazio mailako Hezkuntza Ministeritzatik gehiago lagundu behar diegu abiapuntu baxuagotik hasten direnei eta hainbat arlotan: prestakuntzan, liburugintzan, lanerako materialean, teknologian...

Amerikako goi bileran eta herrialde iberoamerikarretako Hezkuntza ministroen bileran kanpo zorraren ehuneko bat hezkuntzan inbertitzea proposatu zenuen eta UNESCOk hori ziurtatzeko agiri bat egitea eta bultzatzea. Zer erantzun jaso zuen zure proposamenak?

Proposamena mozio bezala onartu zen eta orain UNESCOra bidali dugu, beraz baita prozesu hori bidera dezakeena. Oso ondo hartua izan zen eta UNESCOko zuzendari ondokoak epe laburrean batzorde bat osatzea planteatu zuen, martxoan UNESCOko zuzendari-tzak egingo duen bilerarako txostena prestatzeko.

Aurretik ere egon dira laguntzak herrialde garatuen aldetik, baina akordio horiek orokortzea nahi dugu; hots, negoziatio puntualetan gelditu gabe herrialdeen artean estrategiak estandarizatzea nahi dugu. Bestela, gaur egungo erritmoarekin gutxieneko aurrerapenak lortuko ditugu, baina ez gure benetako hezkuntza helburuak.



Euskal Herriko lanbide eskoletako makinak Argentinako ikastetxetara eraman dira

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak berriki Argentinara egin duen bidaiari berriaren arteko lankidetzaren finkatzeko urratsak eman ditu. Hemengo Lanbide eskoletako 45 makina eraman berri dituzte Buenos Aires, Rosario, Paraná eta Río Cuartoko zenbait eskolatan banatzeko eta aurrerantzean ere bide horretan jarraitzeko asmoa agertu dute bi aldeek.

Eusko Jaurlaritzak Formazio Teknologikorako Institutu Eusko-Argentinarra sortu zuen Argentinako Lanbide Heziketari laguntzeko asmoz. Horren haritik, aurten zazpi makina eraman dituzte bertara: elektroerosiorako bat eta kontrol numerikoko sei. Horrez gain, 38 tornu konbentzional ere eraman dituzte Rosario, Paraná eta Cordobako hainbat lanbide eskoletan banatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradunek iaz bisitatu zituzten aipatu eskolak zer behar zituzten ikusteko, eta behar horien arabera makinak eraman dituzte orain. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lanbide eskoletan erabili izan dituzten makinak dira, baina hemen zaharkitutak gelditu direnez argentinarek eman dizkiete. Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak argitu zuenez: *“ez dira makina aurreratuenak, baina Argentinako enpresetara egokitutakoak dira, memento honetan behar dituztenak. Izan ere, garrantzi-*

tsuena enpresetako eta eskoletako makinak antzekoak izatea da, hots, koordinatuta eta egokituta egotea, ez bartzuk aurreratutakoak egotea eta besteak ez. Horrela, Euskadin makinak berritzen ditugun heinean, Argentinan ere horretan laguntzen diegu; birziklaiak horretarako bidea ematen digu”.

Elkarlanak, ordea, badu beste alderdi bat, formazioarena. Argentinatik Euskal Herrira etortzen dira irakasleak makinak erabiltzen ikastera eta prestakuntza jasotzera, gero hara itzuli eta ezagutza hori hedatzeko. Horri ere garrantzi handia ematen diote alde biek.

Lanbide Heziketaren gainbehera eta errekuperatu nahia

Argentinan industrializazioa beste herrialde askotan baino lehenago gertatu zen, eta baita Euskal Herrian baino lehenago ere. 50eko hamarkadan Latinoamerikako herrialderik industrializ-

zatuena zen eta prozesu horrek Lanbide Heziketa indartsua garatzea ekarri zuen. Peronen garaian lanbide eskola ugari eta arlo askotarikoak sortu ziren eta aurreratutakoak eta eredu garriak ziren mundu mailan.

70eko hamarkadatik aurrera, ordea, Argentinako ereduak aldatu egin zen: ekonomiaren irekiera indiskriminatuak herrialdearen desindustrializazioa ekarri zuen. 90eko hamarkadan 1975. urtean zituen langileen erdiak zituen. 90eko hamarkadan langabezia %4 zen eta gaur egun %20 da. Horrek izugarri eragin zuen ekonomia osoan, baina bereziki industrian, produkzioa industrialera eraldatu egin baitzen.

Aldaketa artifizial horrek eta ekonomiaren irekiera indiskriminatuak Lanbide Heziketaren gainbehera ekarri zuen. Beste hezkuntza arloak baino garestiagoa zenez, gobernuak baztertu egin zuen.



Memento honetan horri buelta eman nahian dabilta. Batetik, Lanbide Heziketarako estrategia berriak diseinatzen ari dira. Bestetik, enpresekiko harremana garatu nahi dute. Eta irakasleen prestakuntzari ere bultzada eta ikuspegi berria eman nahi diote. Goi mailako Lanbide Heziketarik ez dago Argentinan, eta hori sortzea da beste erronketako bat. Unibertsitateko ikasketez aparte, goi mailako institutu teknologikoak bultzatu nahi dituzte herrialdearen eredu berriak hala eskatzen duelako eta unibertsitate tradizionalaren aurrean alternatiba bat eskainiko lukeelako.

Hori guztia bideratzeko, aurrekontua iazkoa baino %20 handiagoa izango da Lanbide Heziketan orokorrean, eta Zientzia eta Teknologia arloan %90 handiagoa.

Kezka nagusiak

Argentinako bidaiaren barruan Angeles Iztuetak hitzaldi bana eman zuen Buenos Aireseko eta Rosarioko euskal etxeetan Euskal Herriko egoera politikoaz eta hezkuntza sistemaz hitz egiteko, eta Buenos Aireseko Hezkuntza Ministeritzan bideo-hitzaldi bat ere eskaini zuen zehazki Lanbide Heziketaz aritzeko. Bertaratutakoek ez ezik, Argentina osoko hainbat euskal etxeetan bildutakoek ere izan zuten hitzaldia jarraitzeko aukera eta baita galderak egitekoa ere.

EAEko Lanbide Heziketatik gehien miresten duten puntuetakoa bat enpresekiko harremana da. Hemengo lanbide eskolek harreman estua daukate enpreekin; ikasleek lantegietan egiten dituzte praktikak eta ikasketak bukatu ondoren jarraitzeko aukera izaten dute batzuek. Argentinan, aldiz, ez dago horrelako erlaziorik enpreekin eta hutsune hori nabaritzen dute.

Bestalde, galderen artean eskaerak ere egon ziren; hau da, aurten lau herritara iritsi den laguntza leku gehiagotara hedatu ote litekeen galdetzen zuten. Erantzun zehatzik eman ez arren, Hezkuntza Sailak ahaleginak egingo dituela jakinarazi zuen. •



Rosarioko Mariano Nicolas Savio lanbide eskolaren errealitatea

Rosarioko Escuela de Educación Técnica General Mariano Nicolas Savio da Euskal Herriko eramandako tornu konbentzional batzuk jaso dituen zentroetako bat.

Eskola honetara 1.000 ikasle joaten dira egunez eta gaueko txandan 130. 13-19 urte bitarteko ikasleak dira, eta %70 mutilak. Bi ikasketa mota eskaintzen dira: Ondasun eta Zerbitzuak (honen barruan bi adar: elektronikoa eta elektromekanika) eta Natur Zientziak. Ikasleen %80ak lehen arloa aukeratzen du eta gutxi dira Natur Zientzien hautua egiten dutenak, batez ere neskek.

Azpiegitura aldetik arazo nagusia ondo hornitutako lantegi edo tailerren gabezia da. Oinarrizko beharrak beteta dauzkate, baina hortik aurrera ez. Duela urte dezente hobeto zeudela diote, baina 90eko hamarkadan Lanbide Heziketa erabat baztertuta egon zen hezkuntzaren barruan. Ez zen batere inbertitu eta gaur egun instituzioetatik jasotzen duten diru laguntza oso-oso txikia da: 50 euro hiru hilabeteko mantenurako. Horregatik, Eusko Jaurlaritzatik jaso dituzten makinak oso ondo etorriko zaizkiela aitortu dute, irakaskuntza eguneratuagoa eskaintzeko aukera emango baitie.

Irakasleen egoera ere ez da bate-re ona. Soldata oso baxua da eta ez daukate inolako aholkularitzarik. Ikastaroetan edo jardunaldietan parte hartu nahi badute, beraien poltsikutik ordaindu behar dute eta askok ezin dute.

Oro har, gizartean dagoen giroak ikasleengan ere eragina du. Irakasleek diotenez, ikasleek ez daukate motibaziorik, axolagabetasun handia dago. "Zertarako ikasi? Zertarako ahalegindu?" galdetzen dute irtenbiderik ikusten ez dutelako.

Dena dela, gobernu berriarekin esperantza pixka bat sortu da eta adidi daude denak.



Muga guztien gainera ...euskaraz!

Iruñeko Sanduzelai ikastetxea Antonio Chivite, "Txepilo": "Lagunarteko erabilera da arazo eta hor zaila du irakasleak eragitea"

Iru eko Sanduzelai ikastetxe publikora inguruko guraso euskalzaletatik bidaltzen dute euren haurra, euskara hutsean ikasteko aukera eskaintzen baitie. Oltza bailarako haurrak ere Sanduzelaira etortzen dira, gertuago ez baitute D eredurik. Egun 373 ikasle eta 30 irakasle ditu Sanduzelaiak, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Ikasgelatan 25 haurretatik batez beste hiru haurrek dute gurasoren bat euskalduna. Mikroklimate honetan 4. mailako tutorea dugu Antonio Chivite, Txepilo. Euskararen erabilera urriak kezkatuta, irakasle lan taldea sortu eta ekintza bereziak prestatu dituzte.

Euskarari dagokionean, zein da Sanduzelai ikastetxearen kezka nagusia?

Ahozko erabilerak kezkatzeko gaitu, batez ere ikasgelatik kanpo dagoen hutsuneak (jolaslekuan, lagunartean, jantokian...). Eskolan ikasleek oso ondo ikasten dute hizkuntza formala; gaitasuna badute azterketak egiteko. Baina



kaleko hizkuntza falta dute, lagunarteko hizkera. Erregistro hori kalean ikasi behar da eta irakasleak oso zaila du eremu horretan eragitea. Irakaslea amatxoren figura izateko forma serio bat izatera pasatzen denean, eta irakurtzen edo biderketak egiten irakatsi behar duenean, galdutako egiten du laguntasun rol hori. Irakasleak ezin dio esan haurrari "hoia pikutara, zerri nazkagarri hori". Eta haurrak horrelako esaldiak behar ditu, bestela erdaraz esango ditu eta, kalean oso eskura baitu erdarazko erregistro osoa.

Ekintza zehatzak proposatzeko, iaz euskara lan taldea sortu zenuten.

Lan taldea irakasleen prestakuntza modalitate bat da. Normalean lan taldeak Berritzeguneen barruan egiten dira, hainbat eskolako irakasleak bilduta. Baina inork ez dizunez edabe magikorik ematen, gure arazoaren konponbideak gure artean aurkitu behar genituela erabaki genuen. Eskola barruan sortu genituen lan taldeak, irakasle guztiak lau lan taldetan sartuta; horietako bat euskararen lan taldea zen. Horrela, prestakuntzan erabili beharreko denbora euskarari eman diogu. Maila guztiak ordezkatzeko sei irakasle bildu ginen. Prestakuntzan sakondu dugu





ezagutza horiek zuzenean praktikara eramateko, eskola osorako proposamenen bitartez.

Ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzeko ekintza zehatz batzuk tutoretzak eta jolaslekuko jolasak izan ziren. Azal itzazu.

Txikientzat eurak baino handiagoak izaten dira eredu, haiek imitatzen dituzte. Hor aukera bat ikusi genuen gure lanerako. Ikasle handienek txikientzat jolaslekuko jolasak antolatu zituzten. Ardura hartu nahi zuten ikasle handiak taldetxotan bildu ziren, euren kargu egun eta jolas zehatz batzuk hartuz. Sekulako ilusioa egin zuten ardurak hartzeak, eta benetan kezkatu ziren txikiak jolaslekuko ekintzatarako erakartzeaz.

Beste ekintza bat tutoretza izan zen: haur handienak txikien tutore bihurtu ziren. Eskola guztiak hartu zuen parte. Handien gela bakoitzari txikien gela bat zegokion. Eta gela horretan, ikasle handi bakoitzak ikasle txiki baten ardura zuen. Lehendabizi hiztegi lana egin genuen: txikiak ulertzen ez zituzten hitzak idatzi zituzten, eta gero tutore bakoitzak bat-batean erantzuten zion bere ikasleak galdetutakoari. Handiek ez zuten erantzuna aurrez prestatu behar, garrantzitsuena ez baitzen hitzaren esanahia jakitea, baizik eta harreman bat



sortzea bien artean eta handiek txikiei laguntzea. Beste behin tutoretzaren bidez ipuinak kontatu zizkieten handiek txikiei, tutore bakoitzak bere ikaslea era pertsonalean hartuta.

Erabilera sustatzeko beste bi ekintza, kanpaina eta autokontrol fitxa dira.

Korrika Txikiaren bukaeran ikasgela bakoitzak euskararekiko konpromiso bat hartzen du. Konpromiso hori hautatzeko, alde aurretik kanpaina handi bat egin genuen, pasabideetan, komunetan, jolaslekuan eta jantokian ere euskaraz egin zezaten kontzientziatzeko. Mezuak eta kartelak ikasleek sortu zituzten.

Bestetik, "Euskaraz eta kito" autokontrol fitxa betetzen dugu egunero. Haurrak kolore bat ematen dio egunaren une bakoitzari, erabili duen hizkuntzaren arabera. Astearen bukaeran ikusi egiten dugu ea zein egoeratan egiten dugun erdaraz eta zergatik, eta zer egin dezakegun euskara gehiago erabiltzeko.

Helduak txikiagoentzat eredu direla esana duzu. Irakasleek ikasgelaz kanpo eta helduen artean euskaraz egiten al duzue?

Irakasleen artean euskaraz jarduten dugu beti, toki guztietan. Gurasoekin hitz egiten dugunean, erdaraz gehiengotan, saiatzen gara ikasleen aurrean ez egiten, ikasgelan giro euskalduna mantentzeko. Garrantzitsu da hori. Haur Hezkuntzan, esaterako, gurasoak erre-

zago sartzten dira ikasgela barruraino, logikoa den bezala. Baina, noizbait, bi-hiru ama ikasgela barruan gelditzen badira euren kontuez hizketan, gaztelaniaz, gero irakasleei izugarri kostatzen zaie gela barruan euskal giroa jartzea.

Testu liburuei dagokienean, Nafarroako Gobernuak euskarazko batzuk debekatu behar omen ditu. Kontu horrek zer eragin izan du zuenean?

Guk erabiltzen ditugun testu liburuak agian ez dira, hain justu, Nafarroako Gobernuak bedeinkatutakoak. Nik uste, legez, ezin dutela liburu bat debe-



Nafarroako Gobernuak ingelesaren aldeko jarrera hori D ereduari kalte egiteko asmoarekin hartu duela iruditzen zait. Batetik, guri ikasleria kendu eta erdal eskola pixka bat altxatzeko, eta bestetik hemen euskarazko murgiltze plana pikutara bidaltzeko.



katu, nahiz eta Hezkuntza kontseilariak prentsan hori esan. Honetan, bai LOGSEk eta bai onartu berria den LOCEk diotena errespetatzen dugu, hau da: erabili beharreko testu liburua edo materiala ikastetxeetako autonomia pedagogikoari dagokio, eta horren arabera aukeratzen dugu.

Alde horretatik askoz larriagoa da gaztelaniako ikasgaiaren agindua, liburuena baino. Nonbait, legez, A eta D ereduak bi eredu simetriko bezala sortu ziren. Legeak jartzen zuena orain agindu bihurtu du Nafarroako Gobernuak: A ereduan 3 urterekin hasten direnez euskara ematen, astean lau orduz, D ereduan gaztelaniarekin gauza bera egin behar dugula agindu du.

Euskararen kontrako aginduak datozenean, Gobernuaren aurrean zer jarrera hartu behar lukete eskolek?

Gure eskolan aspaldian osatu genuen Hezkuntza Proiektua. Bertan denok hartu genuen parte, bai gurasoak, bai irakasleak eta baita beste langileak ere. Helburu garrantzitsu bat euskararen erabilera da, eta besteak ahaztu gabe, horretarako bitartekoak finkatuta ditugu: testu liburuen aukeraketa, gaztelaniaren ezarpen berantiarra (3. mailan)... Euskararen erabilerari begira egiten dugu hori dena, eta esan bezala, eskola komunitate osoaren adostasunarekin. Gure ustez hala egin behar da, eta zergatiak arrazoitu. Gaztelaniari dagokionez, Nafarroan diren errealitate linguistiko ezberdinak kontuan hartzea aldarikatzen dugu, eta, lortu beharreko helburua berdintsua izan arren, erritmoa eta denborak ezberdinak izan daitezkeela agerrarazi nahi dugu.

Nafarroa osoan bi urtez behin egiten diren ebaluazioetan, gure 6. mailako ikasleak erdaraz ere beste edozein ikasle bezain ongi moldatzen dira. Legearen ezarpen malgua eskatzen dugu, besterik ez.

Onerako eta txarrerako, administrazioak ezin du dena kontrolatu. Gizarteak nola erreakzionatuko duen eta zeren aldeko apustua egingo duen, administrazioaren kontrolpetik kanpora dago. Eta gizartean orokorrean euskararen aldeko jarrera dagoela iruditzen zait.

Ingelesak ere presentzia handiagoa izango du. Zer iruditzen zaizu?

Gure paranoiak direla esango dute agian, baina ingelesaren aldeko jarrera hori D ereduari kalte egiteko asmoarekin atera dela ikusten dugu guk. Batetik, guri ikasleria kendu eta erdal eskolak pixka bat altxatzeko, eta bestetik hemen euskarazko murgiltze plana ahal duten neurrian hankaz gora jartzeko.

Lehen ingelesa 1. edo 2. mailatik aurrera ematen zen, eta astean hiru saio izaten ziren. Orain, 3 edo 4 urtetik hasten da (2/4 saio) eta Lehen Hezkuntzan hiru saio izatetik bost saio izatera pasatu da. Gehiegizkoa iruditzen zait. Guk nahiko lan dugu euskararen ahozko erabilera orokortzeko. Hirugarren hizkuntza ikasteko gaitasuna handiagoa da elebidunengan, bai, baina lehenengo bi hizkuntzak ongi menperatzen badituzte, bestela ez. Egokiagoa litzateke ingelesa adin batetik aurrera lantzea, euskara finkatua dutenean. Esango dute euskara finkatzeko garrantzitsuena ez dela eskaintzen zaion denbora, kalitatea baizik; baina denbora kontua ere bada. Ingelesa sartuta euskarari orduak kentzea da egin nahi dutena. Ingelesak estatus edo ospe handia duenez, amu horrekin euskarazko murgiltzea ahuldu nahi dute. Gaztelaniako eskolei ingelesak ez die kalterik egiten, alderantziz, ikasleak eurenganatzeko buru-belarri sartuko dira ingelesan. Lehen guraso askok D eredua hautatzen zuten, "bide batez euskara ikas zezan" haurrek; orain guraso horiek galtzeko arriskua dugu. Lan zaila jartzen digute, gainera. Gurasoak erakartzeko ingelesa hartu beharra dugu, jakinda euskarari neurri batean kalte egiten diola. Hor ere legeak malgugoa izan beharko luke eta ingelesa era progresiboan ezarri, institutuari edo unibertsitateari begira. •





Arangoiti ikastolak euskaltzaleon laguntza behar du



Nafarrok geure Lingua Navarrorumean ikasteko eskubidea dugulako...
lagun dezagun!



ARANGOITI ikastolari lagundu nahi badiozu, sartu zure laguntza kontu hauetakoren batean:

EUSKADIKO KUTXA	3035 0058 35 0580077630
NAFARROAKO KUTXA	2054 0041 82 9130486174
BASERRITARREN KUTXA	3008 0042 55 1119150728
NAFARROAKO KUTXA	2054 0041 86 9134923815
GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA	2101 0381 05 0011331584
SANTANDER CENTRAL HISPANO	0049 2572 24 2514210130

MILA ESKER
lagundu
duzuen guztioi


Zarena zarela ere, hauxe duzu dibertimendurik aproposena:

Lauburua

Zuhurtzia, zortea, sena eta abilezia uztartzen dituen mahai-jolasa.

SALMENTA PREZIOA

35€



 **ARGIA**

ARGIAko 943 37 15 45 zenbakian,
denda@argia.com helbidean edo
ohiko salmenta puntuetan.